



ARGIA



KRONIKA MURRUEN BARNETIK

Kartzela kartzelago

COVID-19 garaian

22-26. orriak

#2.732 | 2021 / 05 / 16 | 3,90 €



Mixel Berhokoirigoin,
*laboraria eta
sindikalista errotik*

6 | HILBERRIA



**Noiz bukatzen
da armairua?**

27 | SEXUALITATEA



**Bioaniztasuna
ekonomiaren erdigunean
jartzeko hamaika arrazoi**

32 | IKERKETA

2. argitaraldia

Bizitzaren ederra loratu dadila

Jakoba Errekondo

Loreak etxeko poza dira. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, ureztaketa, ongari naturalak nola egin eta nola birlandatu.



25€

Orri kop.: 248

BIZI BARATZEA

ARGIA

EROSTEKO: argia.eus/azoka 943 37 15 45



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 11 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 11 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 11 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
SHU OTERO

Iritziak

- 17 | KARMELO LANDA
- 18 | SONIA GONZÁLEZ
- 19 | ANUNTXI ARANA
- 19 | CASTILLO SUÁREZ
- 20 | JON ALONSO

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: IONE FERNANDEZ
- 54 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

27 | SEXU ASKAPENA

Hiruki Larroxako kide diren Egoitz A. Albeniz eta Ibai Fresnedo elkarrizketatu ditu Mikel Garciak. LGBT borrokaren barruan korrante erreformistak eta erradikalak dituzten planteamendu diferenteak azaldu dituzte, besteak beste. Homosexualitatek ere heteroaraia birproduzitzen aritzeko arriskua baitago.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | PERTSONAIA | MARCELA INDA
Euskara da nire lekua, arraina uretan bezala nago bertan

Miel A. Elustondo

22 | COVID-19A ESPETXEAN
Besarkadarik gabeko urtea Renneseke presoontzat

Itziar Moreno

32 | INGURUMENA
Bioaniztasunaren pisua ekonomian

Urko Apaolaza

36 | EKONOMIA | TEILA FABRIKA
Elkarlana, ekonomia soziala eta kultura

Peru Iparragirre

42 | KULTURA
Balea baten sabelean

Jone Alaitz Uriarte

44 | KULTURA | ZINEMA FEMINISTAREN HISTORIAK
Mundu ikuskerak proposatze aldera

Ainhoa Gutierrez del Pozo

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea

Lehendakaria
Onintza Irureta

Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Ixone Arana, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Garcia, Oihane Arretxea, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia, Eneko Arzuaga

Argazkilaria
Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta
Karlos Olosolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012

ISSN
0213-909X

Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoko
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefona
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi duguz.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA





ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Txikiegiak agian

Ehunka katuarrain hilik. Pasaiako badiako sarbidean topatu dituzte Donostiako urpeko igerilari talde bateko kideek. Arrantzontzi handi bateko arrantzaleek botata, nonbait. Izan ere, txikiegiak ei dira guk jateko. Interes txikia omen dute guk erosteko. Handira bizi den gizartean soberakina baita txikien bizitza.

 BUCEO DONOSTI  AXIER LOPEZ





HILBERRIA

MIXEL BERHOKOIRIGOIN

Laboraria eta sindikalista errotik

Mixel Berhokoirigoin (Gamarte, 1952-2021) laborari baxenafartar eta ELB sindikatuko sortzaileetakoa zendu da minbiziaren ondorioz. Baserritar txikien alde konprometitua eta militantzian zaildua, Euskal Herriko Laborantza Ganbera martxan jarri zuen taldean protagonismo berezia izan zuen, Frantziako Estatuaren jazarpen judiziala gaindituz, eta Euskal Herrian lurraren defentsan ari direnentzat erreferentzia nagusietakoa izan da. Herrigintzan engaiatuta bizi zen eta “bakearen artisau” lanetan ikusi dugu azken urteetan.

 URKO APAOLAZA AVILA  DANI BLANCO

Gamarten hil da Mixel Berhokoirigoin euskal laborari eta sindikalista ezaguna, bere jaioterrian, lurrari lotuta bizi eta lan egin izan duen txoko berean. Euskal Herriko Laborarien Batasuneko (ELB) sortzaileetakoa eta Confédération Paysanneko idazkari nagusi izandakoa, lana, militantzia eta konpromisoaren bidez utzitako arrastoagatik zen ezagun, eta ibilbide horrek Euskal Herriko nahiz kanpoko laborarien artean erreferentzia nagusietakoa izatera eraman zuen gamartearra.

1982n sortu zuen ELB beste laborari batzuekin, laborantza herrikoia alde egiteko asmoz. Ordura arte, FNSEA zen laborarien sindikatu bakarra, eta haren barnean aritu zen sindikalgintzan, labo-

rari txikien aldeko politikak, neurriak eta laguntzak bideratzeko helburuarekin. Baina FNSEAREN monopolioa bestelako nekazaritza baten aldekoa izaki, atera eta sortu zuten ELB. Kontatzen zuenez, garaiko testuinguruan bi ideiei buruz konbentzitu behar izan zituzten herritarrak, pedagogia lan handia eginenez. Batetik, Ipar Euskal Herri mailako egitura baten beharra, lurraldeak orduan ez zuelako aitortza instituzionalik; eta bestetik, FNSEAtik ateratzea eta ELB sortzea ez zela zatiketa bat, baizik eta bestelako laborantza baten alde aritzeko helburuak ekarritako erabakia.

Sektorean agintzen zuten monopolioen kontra jardun eta alternatibak eskainiz lortu du ELBk laborarien onespena; eta Ipar Euskal Herriko nekazarien

sindikatu nagusi bilakatu da. Berhokoirigoin izan zen haren aurpegia eta eleduna urtez luzez.

Hazparneko Laborantza lizeoan ikasia, Ipar Euskal Herriko beste militante batzuen gisara, MRJC Euskaldun Gazterian jaso zuen bere formakuntza politikoaren zati handi bat Gamarteko laborariak 70eko hamarkadan, eta halaxe ezagutu zuen Mikele Hirigaray bikotekidea.

EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBERAKO LEHENDAKARI

Nekazaritza eredu intentsibo eta oldarkorrari aurre egiteko, Ipar Euskal Herria onartuko zuen benetako nekazal egitura demokratiko bat eraikitzea eta bertako nekazaritzaren errealitatea

kontutan hartuko zuen laborantza ganbera bat beharrezkoa zela iritzita, 2005ean Euskal Herriko Laborantza Ganbera (EHLG) sortu zuten Ainhize-Monjolosen ELBren bultzadaz, Berhokoirigoin haren presidente zuela.

Aurretik, Paueko Laborantza Ganberarako hauteskundeetan kanpaina egin zuten Euskal Herriko Laborantza Ganbera baten aldarria eramanez, eta zehaztuz hauteskundeak irabaziz gero egitura sortuko zutela. Ipar Euskal Herrian lehen indar atera ziren eta orduan hitzetik ekintzara igarota, sortu zuten egitura.

Frantziako Estatuak erakunde horren kontra egin zuen berehala, Paueko Laborantza Ganberaren babesarekin, beste erakunde ofizial baten izena erabiltzeagatik, eta ondorioz birritan epaitu zuten Garmarteko sindikalista, 2008an eta 2010ean, bietan errugabe deklaratu zuten. “Ez dut militantzia errazik ezagutzen, baina inplikatu ezean, egoerak nekez egiten du hobera”, esan zion hedabide honi 2012an egindako elkarrizketa batean.

Hamar urtez izan zen ganberako presidente, eta kargua uztean hala adierazi zuen *Laborari* aldizkarian, erakunde horren funtzio eta desfioez galdetuta: “Soka tira gaitza bada laborantza modeloen artean, industrializazioa eta iraunkortasunaren artean. Badakigu nork nora tiratzen duen. Gu gira soka horretan beste batzuen ondoan laborantza iraunkorrari buruz tiratzen dugunak”.

EHLGren baitan eta beste hamaika egitasmoren bidez –Lurrama edo Euskal Herriaren elikadura burujabetzaren aldeko Etxalde taldea kasu, zeinaren kide zen–, espekulazioaren kontra eta eredu ekologikoaren alde egin zuen lan Berhokoirigoinek, eta bere ideiak sarritan zabaldu izan zituen elkarrizketa eta hitzaldietan. 2017an *Elikadura 21* batzarrean azaldu zituen horietako batzuk: “Nekazaritzaren egitekoa baldin bada munduari elikadura sortzea,



LURRARI LOTURIK

Lana, militantzia eta konpromisoaren bidez utzitako arrastoagatik zen ezagun Mixel Berhokoirigoin.

jendeak elikatzea, kantitatez eta kalitatez... arazoa da ikusten dugula gaurko munduan mila milioi jende daudela goseak, beste mila milioi gehiago gaizki elikatuak... Ez da arazo teknikoa, politikoa baizik”.

BAKE ARTISAUA

Laborantzaren eta sindikalismoaren arloan ez ezik, herrigintzan ere oso sarturik ibili zen Mixel Berhokoirigoin. Abertzaleen Batasuneko eta Batera plataformako kide izan zen. 2016ko abenduan Luhusoko armagabetze-ekintzan hartu zuen parte, zeinean poliziak atxilotu egin zuen lau lagunekin batera; Bakearen artisau ezizenez ezagunak, elkartasun uholdea jaso

zuten herritarren aldetik eta Bakegileak talde sortu zuten. Handik hilabete batzuetara ETAREN behin betiko armagabetzea burutu zen gizarte zibilaren zaintzapean.

Bake eta elkarbizitzaren alde engeiatu ikusi dugu azken urteetan. “Gatazkaren ondorioen konpontzea, kartzelaratuak diren pertsona guzientzat presondegia ez den beste perspektiba bat atzematea da”, esan zuen pasa den urtarrilean Baionan egindako mobilizazioan, bere azken interbentzio publikoetako batean.

Kultura ere gustuko zuen Berhokoirigoinek. Antzerkigintzan aritu zen gaztetan Hiruak Bat eta Biper Beltxaldeetan, baita iaz Gamarte, Ainhi-

ze-Monjolose eta Lakarrako herritarren artean osaturiko *Hiru zitxun* sorkuntzan ere. Bertsozalea zen, eta aritutakoa lekuko irrati-saio batean zein herriko besten giroan.

Uhartia etxaldean esne-ekoizpenean eta kiwai fruitu ttipiaren ekoizpenean aritu izan zen 30 urte baino gehiagoz gamartearra, errotik laborari eta sindikalista, Mikelerekin batera. Egun haren seme Iñakirekin eta Maitenarekin konpartitzen zituen lan horiek, ahal zuenean laguntza eskainiz, maite zituen lurra eta bere senide eta lagunak zainduz azken unera arte.

Minbizi azkar batek eraman du ARGIA n lankide dugun Jenofa Berhokoirigoinen aita Mixel. ●



ALBERTO ELOSEGI / ARGIA



FOKUS



DANI BLANCO / ARGIA



ARGIA

GALERIA. Goitik behera, ezker-eskuin: Gamarteko Uhartia etxaldean lanean; Parisen presoek eskubideen alde egindako manifestazio amaieran hizketan; Euskal Herriko Laborantza Ganberako egoitzan, Ainhize-Monjolosen; ARGIA 2000 topaketetan, Rafa Díez eta Joxe Elorrietarekin.

ERREAKZIOAK

“Teoriatik praktikara iragaitea zen Mixelen filosofia”

Mixel Berhokoirigoinen heriotzak Euskal Herriko eta kanpoko eragile sozial eta politiko ugariren erreazio anitz sortu du, bere lana eta izaera aintzatetsiz. Zaila da guztiak jasotzea, baina hemen bildu ditugu haietako batzuk.

Euskal Herriko Laborantza Ganbera: “Mixel sortzaileetarik izan zen, eta hamar urtez elkarteko lehen lehendakaria. Euskal Herriko Laborantza Ganbarak eta berak ere pertsonalki eraso judizialak jasan zituen, frantses estatuarengandik. Bere izate azkarra baliosa izan zitzaigun ataka guzi horietarik indarturik ateratzeko (...) Teoriatik praktikarat iragaitea zen Mixelen filosofia”.

Mikel Hiribarren (ELB): “Zenbat bilkura egin ote zuen ibilbide guzian Mixelek? Milaka. Ipar Euskal Herriko herri guztiak eta baseri asko ezagutuak zituen. Frantziako Confederation Paysanne sindikatuen sortzaile eta kudeatzaile izana zen. Eta begi bat bazeukan oraino berriki Bruselan erabakitzen ari den Nekazaritza Politika Bateratuaren eztabaida eta negoziazioetan. Sakonean ikertu eta jarraiki behar zituen hunkitzen zituen gai guztiak, laborantzaren etorkizunari lotuak zirenak bereziki”. (*Berria*, 2021-05-09)

Jean-Rene Etxegaray (Euskal Hirigune Elkargoaren lehendakaria): “Gizon justuaren heriotza! Mixel Berhokoiri-

goinek utzi gaitu, zuhurki, bizitza maitatzen zuen bezala. Bere lana izugarria da. Nekazaritza munduak baina baita Euskal Herriak ere hainbeste zor diote! Gogoratzeko adibide bat”.

Confédération Paysanne: “Gizon handia galdu dugu, laborari militantea eta euskalduna, bera gabe gure proiektu politikoak ez luke gaur ahalako arrakastarik izango”

Foro Sozial Iraunkorra: “Bakearen artisaua, ETako desarme zibilaren protagonista nagusietako bat eta, orokorrean, Euskal Herriko bakea eraikitzekeko prozesua aurrera egiteko lanean ari garen guztion bidaide”.

Jean-Michel Bicain (Gamarteko auzapeza): “Duela bi urte [Hiruak Bat] elkarte berrabiatu zen eta 2019ko agorrilean ikusgarri bat egin genuen bere parte hartzearekin. Herria biziarazteko dinamika laguntzeko onartu zuen. Jendeak ez zuen bere alde hori ezagutzen. Harro gaude berarekin momentu hori bizi izanaz” (*Mediabask*, 2021-05-08)


ELA: “Pertsona eredugarria izan da, benetako nekazari eta sindikalista eta goitik beherako lider abertzale buruargia (...) Azken urteetan erreferentziatzko militantea izan da bakearen, ETaren armagabezearen eta euskal presoen agendan. Azken bururaino borrokatu zen inork ez zezan

gehiago herria ahotan hartu bakea ez eraikitzeke asmoz”.

Bizi!: “Biziren bidaide izan da hasieratik, gure militanteak formatuz, gure ekitaldien babesle izanez, 2013ko lehen Alternatibaren kasuan bezala (...) Gaur alimaleko eskerra adierazten diogu. Mixel, entseatuko gira ahal bezain ongi zure eredu jarraitzen, jendarte justuago, solidarioago, jasangarriago eta bihozberago bati buruz jada markatu dituzun ildoak ahal bezain untsa irauliz”.

Panpi Sainte-Marie (ELBko lehendakaria): “Harekin ikasi dut ideiak, ideia ona izanik ere, gero behar dela pedagogia, gure jendeari nora nahi dugun, zer nahi dugun azaltzeko. Berak pentsatzen zuen Euskal Herri bizi bat behar dugula, Iparraldean laborantza zen hori, eta bazekien hitz sinpleekin eta eredu eman ez esplikatzen” (Euskadi Irratia, 2021-05-09)

Anita Lopepe (EH Bai): “Ez zen bera ikustea ohituak ginen eremu bat, baina hautu bat egin zuen momentu batean Luhusoko ekimen horrekin, ekimen ausarta, eta azken urteetan buru-belarri aritu da; bere ekarpen handiak emaitzak ekarri ditu hor ere, baina Mixelen ibilbide militante oparoari dagokionez bat gehiago izan da beste askoren ondotik”. (Euskadi Irratia, 2021-05-09)



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com



MOTZEAN

EAEko Auzitegi Nagusiak baliogabe jo ditu ITP Aero Castings enpresak Barakaldon eta Sestaon egindako kaleratzeak eta 87 langileak berriz hartzeko agindu du.

Funts putreei aurre egingo dien banku publiko bat sortzea baztertu dute EAJk, PSEk eta PPk Eusko Legebiltzarrean.

Azken ikasturtean 100 eskola-jazarpen kasu identifikatu ditu Hezkuntza Ikuskaritzak EAEko ikastetxeetan. Ikasleen %18,9k ziurtatu dute tratu txarrak jasaten dituztela eskolan.

Frantziako hizkuntza gutxituen legea onartu eta gutxira helegitea jarri zuten 61 diputatuk. Helegitea publiko egin da: ikastetxeak diruz laguntzeari buruzko artikuluarri baino ez dio eragiten.

77 espetxe urteko eskaera egin dute presoen defentsa juridikoa egiten zuten zortzi lagunentzat. Uztailean hasiko da epaiketa.

650 tontorretarainoko ibilaldiak egin dituzte espetxe politika "bidegaba" salatzeke.

"Kolonbiako herriaren kontrako errepresio bortitza" salatzeke mobilizazioak egin dituzte Euskal Herrian.

ANALISIA



EHUko ikasleak 2021eko urtarrileko azterketaldian.

Aldatu ez dena

PERU IPARRAGIRRE

Maiatzak osterataraz azterketen eta entregen garaia Euskal Herriko Unibertsitatera. Esan beharrik ez dago, gainerako guztia baldintzatu duen moduan baldintzatu du COVID-19aren pandemiak unibertsitatea ere. Joan den ikasturtearen azken zatian, azpikontratatuak garbitzaileak greba bertan behera uztera behartu zituen EHUk osasun egoeraren aitzakiapean, eskatzen zuten hitzarmena onartu beharrean. Itxialdiarekin fakultate gehienak itxi eta irakaskuntza telematikoa izatera pasa zen. Etxetik eman behar izan zituzten klaseak irakasleek, ahal zuten moduan, eta era berean jarraitu behar izan genituen ikasleok.

EHUk 2020-2021 ikasturtean irakaskuntza gutxienez %75ean aurrez aurrekoa izan zedin ahalegina egingo zuela esan zuen, eta hori bermatzeko neurriak hartu zituzten: musukoak uneoro eramatea, aurrez aurreko irakaskuntza eta telematikoa uztartzea eta ordutegiak aldatzea ikasleak "gutxiago" pilatzeko, gelak eta espazioak egokitzea osasun neurriak bete ahal izateko, ikasgeletako leihoak eta atearak irekita mantentzea... Aitzakia horrekin Ibaetako campuseko HEFA fakultatean ikasleek kudeatzen eta erabiltzen zuten gela osterataraz ere ikasgela bilakarazi zuten, jardun politikorako espazio gabe utziz ikasleak, Unibertsitateko Indar Batasunak salatu duen moduan, eta oraindik ere berdin jarraitzen du egoerak, azken hilabeteotako borrokaren bidez aurrerapausoak eman diren arren.

Hala ere, gauza asko ez dira aldatu. Campusetara heltzeko garraio publikoa lehen bezain beteta joaten da, gradu batzuetako taldeak lehen bezain handiak dira -ia 100 ikaslekoak batzuk-, eta lehen lauhilekoko aurrez aurreko azterketek pilaketa handien irudiak utzi zituzten, garbitzaileen eta ikerlarien lan-baldintzak lehen bezain kaskarrak edo are okerragoak dira. Unibertsitateko langileen txertaketaren auzia ere hor dago.

Datorren ikasturterako bide-orria atera berri du EHUk eta gauza gutxi aldatuko direla dirudi. CO2 neurgailuak jarriko dituzte, eta gehienez ere ikasgelako 50 ikasle egon daitezela "gomendatuko" dute, eta ikasgela 20 minuturo 10 minutuz aireberritu beharko du irakasleak. Ezer gutxi langileen eta ikasleen gainerako baldintza materialei buruz, tasei eta bekei buruz, jarduera akademiko hutsetik antolatzeke espazioei buruz... Pandemiaren kontuak azaleratu du zer den lehenesten dena, zertan den instituzio askoren logika. Gauza asko aldatu beharko liriateke unibertsitatean, pandemian egon ala ez. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Bizilagun onak



ARITZ GALARRAGA

Ez dakit adina izango den, baina gero eta zailagoa zait liburu bat, liburu konkretu bat, bila ari naizen liburu hori aurkitzea etxeko apalategietan, denbora tarte arrazoizko batean –azkenean beti bukatzen baitut aurkitzen, hain da handia nire burugogorria–. Garai batean ez zen hala, azkar samar aurkitzen nuen bilatzen nuena. Eta seguru ez dela oroitzeko gaitasunaren gutxitzea soilik; apalategiak betetzen dituzten liburuen bolumen gero eta handiagoak ere izango du zerikusia, eta bolumen gero eta handiago horrek apalategien barne ordenan, segur aski nik bakarrrik ezagutzen dudana ordena horretan eragin duen desordenak. Uste dut iritsi dela eguna: ordena berri bat eskatzen du gure bibliotekak.

Baina zein da biblioteka baten ordena egokia? Areago, ba ote dago ordena egokirik? Eta areago oraindik, zer demonio da ordena deitzen dugun hori? Roberto Calassori kasu eginez gero, biblioteka baten ordena egokia ezin daiteke izan plurala baina, biblioteka hori erabiltzen duen pertsona bezain plurala behintzat. Batzuetan berregin dezake erabiltzailearen pentsamenduaren egitura. Baina biblioteka perfektuaren urrezko araua beste bat da, bizilagun onarena: alegia, liburu jakin bat bilatu, baina ondoan dagoen liburua hartzen bukatzen baduzu. Liburu batzuk ez baitira eskuratzen berehalakoan irakurtzeko, baizik eta denbora batera. Maiz sorpresa hartzen da, bazeneukala ere ez zenekien liburu bat aurkitzean. Izan daitezke gainera liburu egotziak, beste lekuren batetik kanporatuak, trabagarriak. Zutabe hauetan beti paratuko gara irakurketa salbaiaren alde.

Biblioteka bat ordenatzeak ur sakonak mugitu ditzake. Biblioteka bat ordenatzeak inoiz ez du soluziorik izango, are ez luke soluziorik izan behar, etengabeko mugimenduan dagoen organismoa baita. Biblioteka bat izan beharko litzateke plazer hutsez begiratzen duzun paisaia bat. Beste baterako utziko dut berriz ordenatzeko lana. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

EKONOMIAREN TALAIAN

Zatiketa sindikala



JUAN MARI ARREGI

Maiatzaren Lehena egin eta hurrengo eguneko prentsan titularrak bat zetozen: pandemiak eta banaketa sindikalak mugatu dituzte manifestazioak. Egia da pandemiarena muga berria dela, nahiz eta bigarren urtez jarraian izan. Baina banaketa sindikalarena ez da berria.

Euskal Herriko kaleek maiatzaren 1ean beste behin erakutsi dute jadanik tradizioa dena ustezko “demokrazia” iritsi zenetik. Sindikatu bakoitza bere banderekin, bere ordutegiarekin, bere ibilbidearekin eta bere kontsignekin. Eredu horretatik urrun geratzen dira frankismoaren garaian ezkutuaren egiten ziren Maiatzaren Lehen horiek, non elkartuta agertzen ginen.

Frankismoaren osteko errealitate sindikal tradizional honek manifestarien presentzia mugatzen du, logikoa denez. Milaka dira sindikatuta ez dauden pertsonak, eta ez zaie interesatzen bloke bat edo bes-

tea, bandera bat edo beste. Bidegabekeria, desberdintasuna, prekarietatea, laneko heriotzak, subiranotasun gabezia... Horren guztiaren aurka agertu nahi dute, langile guztiei eragiten dieten gaiak baitira.

Horrek esan nahi du M1ean sindikatu eta langile guztiek bat eginda agertu beharko luketela? Nire ustez, politika sindikal bateratuak ez dauden bitartean, iruzurra eta hipokrisia litzateke. Euskal Herriko kaleek, enagarren aldiz, errealitate sindikal triste islatu zuten berritoki; eta protagonismo, dogmatismo eta burokrazia asko ezabatu beharko litzateke errealitate horretatik. ●

Marcela Inda

ARGENTINAR EUSKALDUN PETO-PETOA



EUSKARA DA NIRE LEKUA, ARRAINA URETAN BEZALA NAGO BERTAN



Argentinatik etorri ikaslea da Lazkaoko Maizpide euskaltegian. Harekin batera heldu hamaika ikasleek bi hilabete egin eta itzuli ziren beren herrialdeetara. Harrigarriki, bertan dugu oraindik mailarik handieneko ikaslea, askok baino hobeki dantzatzen duela euskaraz mingaina. Bihotzean eta ezpainetan euskara Marcela Indak.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Zuri euskaraz hitz egiten aditu eta ezin antzeman argentinarra zarela...

Asko gustatzen zait euskara, maite dut euskara, eta gogoz ikasten dut. Eta, nire alde!, ez dut lotsarik, ez zait inporta akatsak egitea, hitz egiten ari garenean denok egiten ditugu akatsak... Ikasleone artean, berriz, bat baino gehiago dira hitz egin nahi ez dutenak, akats egiteko beldurrez. Nik ez dut horrelakorik, akats ez akats nabil, baina aurrera. Geure ama hizkuntzan ere egiten ditugu akatsak, berezkoak zaizkio hizketari: esaldi osoak ez egitea, esan nahi duguna ez borobiltzea... Badira idatzi bezala hitz egiten duten pertsonak, bestela hitz egiten ez dakitenak. Aspergarriak, ezta? Kar, kar...

Primeran hitz egiten duzu... Ez dakit nola asmatu duzun horren ongi ikasten...

Maitasunaren indarra da. Ez da besterik. Lehen ere esan dizut, maite dut euskara. 2009an hasi nintzen euskara ikasten, Buenos Aireseko Euskaltzaleak elkarrean. Lehenengo bi urteetan, eskoletara joan besterik ez nuen egin. Hutsetik hasi nintzen, batere ez nekiela, ez "bai", ez "ez". Ezer ez. Eta ikasten hasi orduko, hizkuntzaz maitemindu nintzen. Eta, adibidez, euskal dantzen kasuan ez zait horrelakorik gertatu. Behin baizik ez naiz izan Argentinako Euskal Astea. Ez naiz oso folklorikoa, nahi baduzu. Zentzu horretan ez naiz diasporako este-reotipoa. Bereziki hizkuntzarekin dut

nik harreman sendoa. Erakargarria zait. Esaldiak eraikitzeke baliatzen dituen egiturak-eta!

Euskaltzaleaken, euskara eskoletara besterik ez zinela joaten esan duzu...

Klasera joaten nintzen, baina ez nuen Euskaltzaleaken parte hartzen, ez topaketa eta ez ekitaldietan: nire lana klase- ra joatea zen, eta txintxo-txintxo joaten nintzen, astea bi aldiz, eta eskolako lanak ere beti egiten nituen. Horrela eman nituen bi urte. Gero hasi nintzen Euskaltzaleaken ekimenetan parte hartzen eta, horrez gainera, Euskara Munduan programan ere sartu nintzen 2011n. Asko aurreratu nuen urte hartan, eta esango dizut zergatik: programak lau urte irau-

EUSKAL

11 EGUN ELISKAR



Marcela Inda

BUENOS AIRES, 1978



Filosofia ikasketak egina, antzerki-gintzan jarduna, euskara irakasle Argentinan, aurtengo urtarriletik ekainera bitarte ikasle Lazkaoko Maizpide euskaltegian. 2009an hasi zen euskara ikasten Buenos Airesen. Handik urte bira Euskara Munduan programan zen, eta, laster, Lazkaoko euskaltegian. Berriz etorri da aurten, Hego Amerikako hainbat kiderekin batera. Haiek bi hilabete igaro eta joan ziren. Indak C1 azterketa du begiz joa, ekainean. Hortxe da bitartean, euskaraz maitasunez hitz eginez, eta Joseba Sarrionandiaren liburuak bata bestearen atzetik irakurri.

ten du, eta, ni, laugarrenean sartu nintzen. Alegia, esan nahi dut nire ikaskide haiek laugarren urtea betetzen ari zirela, eta, beraz, nik baino askoz gehiago zekitela. Neure kabuz ikasi behar izan nuen, haien mailara iristeko, nolabait. Gogoratzen dut nola jardun nuen zer-nori-nork aditz paradigma ikasten, lehenaldiko forma, neuk bakarrik, eta hura nahastea! 2012an, berriz, Maizpidera etorri nintzen, hiru hilabete egin nituen Lazkaon, irailetik azarora, eta ikaragarri ikasi nuen.

Eta Buenos Airesera itzultzean?

Itzultzean, eguneroko bizia egin behar! Han ez dugu egunero euskaraz hitz egiteko modurik. Eskerrak baliabideak nahi beste ditugun: Internet, eitb.eus/nahieran... Baina hori ere ez duzu eguneroko gauza. Euskaltzaleak zortea dugu, zeren zenbait aukera baditugu, zenbait irakasle, zenbait lagun, euskaraz dakitenak. Baina Lazkaotik Buenos Airesera itzuli eta euskarazko eskolak ematen hasi nintzen. Lehenengo, jakina, ikasten hasi nahi zutenei, eta horrela, nire euskara mantendu ahal izan nuen gutxi gorabehera, ze irakatsiz asko ikasten da, gauzak nola azaldu pentsatu behar duzu, ikasleek egiten dituzten akats nagusiak identifikatu... Bestalde, irakurtzea gustatzen zait, gaztelaniaz irakurtzen nuen lehen, eta, gero, euskaraz hasi nintzen.

Zer irakurtzen, adibidez? Prentsa, literatura, zientzia?...

Idazle bat dut kuttunena, maitatuena: Joseba Sarrionandia. 2012an, hemen izan nintzen garaian, haren *Narrazio guztiak* erosi nuen. Orduan oso-oso zaila zen niretzat, baina hartu eta Argentinara eraman nuen, neure buruari erronka jarriz bezala. Huraxe izan zen nire lehen pausoa Sarri[onandia]ren obrarekin. Askok kostatu zitzaidan irakurtzea, baina liburuak bukatu nuen! Eta, harrezkero, haren liburu gehiago irakurtzen jarraitu nuen: *Ni ez naiz hemengoa*, *Lagun izoztua*, *Kolosala izango da*, *Ainhoari gutunak*, *Hitzen ondoeza*, Habanako gaukarietan lehenengoa: *Bizitza ez al da oso arrisku-tsua?*... Habanako beste biak ere erosi ditut. Eta, iaz, entzun eta grabatu ondo hau, mesedez: pandemia garaian, *Morrok gara behelaino artean?* irakurri nuen. Erosi nuenean, pentsatu nuen: "Baina noiz irakurri behar dut hau?"

Beste lagun bategin batera irakurri nahi nuen, elkarlanean bezala, irakurketa errazteko, ze liburu zaila da, konplikatu, eta, gainera, nik ez nekien ezer Afrikako historiari buruz.

Baina irakurri zenuen...

Bai. "Pandemian irakurtzen ez badut, ez dut inoiz irakurriko!", neure buruari esan, eta konfinamendu garaian irakurri nuen. Askok gustatu zitzaidan, ikaragarri. Orain, nire biblia da! Den-dena dago hor. Morroia Afrikan dago, eta Afrikatik den-dena azaltzen du. Zoragarria da! Barre nahiz negar egiteko, edo haserretzeko! Eta ekonomia, politika, historia, hizkuntza... Dena dago hor. Eta, egia esan, Sarri irakurritu, nekez irakurtzen dut besterik. Hala ere, Kirmen Uribe, Karmele Jaio, Bernardo Atxaga, Uxue Alberdi, Eider Rodriguez... irakurri ditut. Gutxiago, hala ere.

Lazkaon ikasle zaitugu, euskara irakasle, berriz, Buenos Airesen. Horixe ikasi zenuen, irakasletza?

Ez... Filosofia ikasketak egin nituen, baina konturatu nintzen filosofian ez dela egia handirik. Eta handik antzerkera jo nuen. Baina antzerkitik bizitza zaila da. Joan den zazpi urtean antzoki bateko administratzaile eta koordinatzaile izan naiz, Buenos Airesen. Lanari utzi eta etorri nintzen Maizpidera, urtarrilean. Itzultzean, ikusiko dugu zer datorren. Euskara irakasle izan go naiz, baina hortik bizitzerik ere ez dago. Hori baino gehiago behar da. Gutxi ordaintzen digute. Maite dudalako erakusten dut euskara.

Maite duzulako, diozu. Euskaraz ikasi duzu, eta erakusten duzu. Hemengo askok baino gehiago egin duzu...

Badakit euskararen erabilera txikia arazoa dela. Bistan da. Hala ere, nik beste alde azzimarratuko nuke: nik, hona etorri eta jendearekin euskaraz hitz egiteko aukera daukat, eta segundorako bakoitza aprobetxatzen dut horretarako. Horrexek balio du. Baina badakit zertan den egoera hemen. Dena den, Euskal Herrian euskaraz egiten dut nik beti. Hamaika mila kilometro egin ditut hona etorri eta euskaraz hitz egiteko! Beraz, hemen, euskaraz!, eta, beraz, behin, Donostiako tren-geltokira joan, leihatilara zuzendu, trenaren orduaz galdetu, txartelaren pre-



zioaz... ni beti euskaraz, eta leihatilakoa gaztelaniaz. Baina ulertzen zidanez, hala-xe egin genuen elkarrizketa: nik galdera euskaraz, gaztelaniaz erantzuna berak. Bost minutuko elkarrizketa! Haserretu ere egin nintzen...

Hemen askok ez daki euskaraz. Agintarrietan, hamaika dira. Modako kantari batek, berriz, igual esango dizu ingelesez egingo duela hurrengo diskoa...

Eta nor naiz ni inor epaitzeko? Nik neurea egingo dut, neure ahalegina. "Ez duzula euskaraz ikasi nahi? Sentitzen dut, zeuk galtzen duzu aukera, oso hizkuntza ederra baita!". Besterik ez. Ez naiz polizia linguistikoa, zorteko naiz euskaraz hitz egiteko aukera paregabea dudalako hemen, Lazkaon nahiz Aretxabaletan. Euskaltzaleak ezagututako adiskideak ditut Aretxabaletan...

Itzultzean ez dakizu zertan jardungo duzun lanean, euskara irakatsiko duzula besterik.

Bai. Dena dela, talde bat besterik ez nuen izan iaz, eta pandemia zela-eta, online, zoom bidez aritu ginen, martxotik urtea amaitu arte. Oso nekagarria izan zen.

Niri baino gehiago gustatzen zaie nire ikasleei klaseak zoom bidez egitea! Ez dakit ondo pasatzen duten, edo zer den, baina ez dute klaserik galtzen. Posible dute piper egitea, baina ez dute egiten! Klasero konektatzen dira, lehen minutetik azkenerraino! "Zer, nekatuta zaudete?", galdetzen diet, klasea bukatzeko garaian, baina haiek ezetz: "Ez, ez, ondo gaude, segi, segi!". Nahiago ditut aurrez aurreko klaseak, askoz gehiago disfrutatzen dut, zinez gustatzen zait, baina momentuz ezin da.

Lehengusu-lehengusinak ditut Orotz-Betelun, erdaldunak dira denak, ez dute ulertzen zertan ari naizen hemen euskara ikasten"

Zer toki du euskarak Argentinako euskal etxeetan?

Euskal etxe pilo dago Argentinan, eta denek dute, normalean, dantza taldea, frontoia, jatetxea... Euskara taldeari dagokionez, beti dago bazterrean. Buenos

Airesen, adibidez, badira Euskaltzaleak baino egoitza handiagoa duten euskal etxeak, baina beharbada ez ikasle gehiago dutenak. Euskaltzaleak ikasle pila dugu. Oraitxe ez nuke zehatz-mehatz esaten jakingo, baina ehun eta berrogeita hamarren bat? Hor nonbait. Euskaltzaleak, bestalde, online ikastaroak ere eskaintzen ditu, aurten bereziki, eta horrek ere asko laguntzen du. Aurrez aurreko ikasleak ere badira, jakina. Horiek egoitzara biltzen dira. Ez iaz eta ez



JAUREGI

"Han da gure gurasoen etxea oraindik, Orotz-Betelun. Zaharkitua, baina zutik. Casa Jauregi du izena. 2009an etorri nintzenean, etxe barrura sartu nintzen. Etxea bezperan utzi izan balute bezala zegoen! Kedarra sukaldeko hormetan-eta. Oroz gain, bi gauzak hunkitu ninduten han: erbestertzea, batetik, eta aitaren haurtzaro gozoa, bestetik. Eta barre eta negar egin nuen Jauregin, gurasoen etxean".

OBLIGAZIOAZ

"Ez daukat hitz egiteko lotsarik, akatsak akats. Euskaraz ikastea eta hitz egitea gustatzen zait eta, bestalde, ez nago horretara behartuta, ez daukat ikasteko obligaziorik, ez lan bat izateko, ez lanari eusteko. Euskaltegian bertan garbi ikusten da nor ari den gogoz ikasten, eta nor ari den derrigortuta. Eta, hauek, hizkuntzarekin haserretzen dira! Baina euskarak ez du errurik! Euskara ederra da!".

Azken hitza

ESTREINALDIA

"AEBetako ikasle batekin elkartu naiz Maizpiden. Londresen bizi da aspaldi, eta dramaturgoa da. Behin, hizketan hasi ginen, antzerkiaz, eta obratxo bat egitea erabaki genuen. Estreinaldia, laster!".

aurten, baina bai gainerakoan. Etxepare Euskal Institutuaren Euskara Munduan programak euskara klaseak bultzatzen ditu Argentinan, Uruguain, Txilen eta Brasilen, eta programa horri esker, euskal etxe askotan euskara klaseak ematen dituzte. Horretarako, tokian tokiko irakasleak prestatzen dituzte, berariaz. Niri dagokidanez, B2 azterketa egin nuen Euskara Munduan programaren barruan 2018an Buenos Airesen beste zenbait euskara irakaslerekin batera, eta, esaterako, programa horri esker etorri gara aurten hamaika irakasle Hego Amerikatik Lazkaora. Haiek joan ziren, eta ni hemen naiz, ekainean C1 azterketa egin zain.

Online ikastaroek arrakastarik badute Buenos Airesen?

Bai. Buenos Aires oso hiri handia da, eta, batzuetan, baita oso kaotikoa ere. Baliteke denborarik ez izatea euskara eskolara joan eta etorri egiteko. Ni ikasten hasi nintzenean, adibidez, astean bitan egiten genituen klaseak; aurrez aurrekoak, esan nahi dut. Orain, berriz, inork ez du horrelakorik nahi. Astean behin, onenean! Baliteke Euskaltzalearen egoitzara joateko hiria zeharkatu behar izatea, eta horretarako zenbat denbora behar duzun ez dago jakiterik! Batean, metroa gelditu dela; bestean, manifestazioa dela eta ez dagoela pasatzerik. Horrela da beti Buenos Airesen, hiri kaotikoa da, eta hainbat denbora eman behar duzu tokietara heltzeko. Online ikastaroak alternatiba dira.

Zerk eraman zintuen euskarazko eskolatera? Zergatik hasi zinen euskara ikasten?

Hara, bada... Gure aita Orotz-Betelun jaio zen. Jose Luis Inda Erdozain zen izen-deiturez. Ez zekien euskaraz, baina bai haren gurasoek. Ez nituen aitaxi-amatxiak ezagutu, oso gazte hil baitziren. Gure aitak 11 urte zituela, berriz, familia Argentinara joan zen, 1950ean. Gure aita maitasun handiz oroitzen zen

hemen bizitako garaiaz, eta oroitzen zen ez zuela euskararekin batere loturarik. 2004an, gaixotu eta hil zen gure aita. Kolpe handia izan zen niretzat. Oharkabean ez baina ustegabe joan zen aita, eta hausnartzen hasi eta euskara ikasten hastea bururatu zitzaidan. Beti izan nuen aitaxi-amatxien hizkera erreku-peratzeko nahia. Bibiano Inda Garde eta Martina Erdozain Urbeltz ziren aitaxi-amatxiak. Batua ikasten ari naiz, baina, hurrengo pausoa, Orotz-Beteluko edo Artzibarreko euskalkia ikastea izango da nire xedea.

Orotz-Betelun euskararik hitz egiten da?

Ez, aspaldi ez. Lehengusu-lehengusinak ditut han, erdaldunak dira denak, ez dute ulertzen zertan ari naizen hemen euskara ikasten. "Argentinatik hona euskara ikastera etorri zara?"... Ez zaie buruan sartzen. Esaterako, gure aitak esaten zuen gurasoek ez zietela euskaraz hitz egiten, nahiz eta beren artean hitz egiten zuten. Baina historia irakurriaz jabetzen zara euskara kalean hitz egitea debekatuta zegoela, eta debekatuta ez zegoenean ere, arrisksua zela euskaraz hitz egitea. Izebak, gure aitaren arrebak, lau urte zituen hemendik joan zenean. Bere lehen oroitzatza da Tandil [Argentina] herrian, kalean, amaren eskutik helduta dagoela, eta beste emakume bat etortzen zaiela. Euskalduna hura ere. Amari euskaraz mintzatu zaio eta amaren erreakzioa da beldurtzea eta urduritzea, eta gaztelaniaz erantzutea. Beldur handia eraman zuten hemendik hara. Gero jakin genuen aitaxi Bibiano zerrenda beltzean eduki zutela, eta alde egin beharra izan zuela. Baina gure aitak ez zekien horrelakorik. Ez zuten horretaz inoiz hitz egin, nonbait.

Esan duzu hemengo lehengusu-lehengusinek ez dutela zure gogoaz ulertzen, euskara ikasteko tirria makur hori, alegia. Hemen diren gure aitaren lehengusu

-lehengusinek ez zuten euskara ikasteko aukerarik izan, gure aitak bezala. Haien seme-alabek, aldiz, bai, ikastolara joan ziren eta. Baina, begira: gure etxean hiru senide izan gara. Ahizpa dut zaharragoa, gazteagoa neba. Izanak dira gure aitaren herrian, Orotz-Betelun, baina hizkuntzari dagokionez, loturarik ez dute bate-re. Ama argentinarra dut, ez du ulertzen nire gogo hau, baina pozik ikusten nau, eta horrexek balio du. Nik uste ohituta dagoela ni ezertarako "balio" ez duten gauzak ikasten ibiltzea: Filosofia, antzerkia, eta, orain, euskara! Horretan koherentea naiz, behintzat! Kar, kar... Eta ez pentsa ahizpak, ez nebak ere, nire maitasun hau ulertzen dutenik. Baina, gaitz erdi, errespetatzen naute, euskara niretzat oso gauza inportantea dela ulertu dute.

Hainbeste teoria, praxi eta pragmatika eta, azkenean, sentimendua da nagusi zure baitan, emozio bat.

Begira, 2012an, Lazkaon nintzela, Gerriko elkarteak ekitaldi bat antolatu zuen, Harkaitz Cano gonbidatuta. *Twist* liburua argitaratu berritan zen. Ez nuen liburua irakurria, jakina, garai hartan ez bainuen euskaraz irakurtzen. Gonbidatu ninduten, eta joan nintzen... Hizketan ekin ziotenean, negarrari eman nion. Nire pertenezkoa hemen zegoela sentitu nuen, hemengo kulturaren eta hizkuntzaren barruko nintzela. "Ni hemengo naiz", sentitu nuen, "ez naiz Lazkaoko, Buenos Airesekoa naiz, baina... ni Euskarakoa naiz". Euskara da nire lekua, arraina uretan bezala nago bertan. Horixe da nire egia... Uste dut egiaren bila ibili naizela beti, filosofoaren antzera: Filosofia ikasi nuen, ez nuen egia aurkitu; antzerkia gero, zenbait egia aurkitu nuen hor. Baina nire egia -neurea, beste batzuen behar bada ez-, euskararen dago... eta Sarriren liburuetan. Batzuetan pentsatzen dut Sarriren liburuak irakurtzeko ikasten dudala euskara. ●

BABESLETTZA:





Begira, badator maiatza... eta badoa



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Udaberriari neguak darraio maiz politikan, naturan ez bezala. Zenbat *udaberri polit-iko* zapuztu dituen izotzak! Batean, eskuin muturraren oldeak izozten die bihotza ordura arte "Historian inoiz izan den" goberneurik aurrerazaleenaren emaitzen itxaropenean bizi zirenei. Bestean, independentziaren aldeko herri mugimendu indartsuak sinetsi ezinik begiratzen du, hauteskundeetan gehiengo lortu arren, barne katramiletan nahastu eta aurrera egin ezinik elkar trabatuta dabilzan ordezkari politikoen espektakulua. Hirugarrenean, kudeatzaile bikainaren fama zeukan tokiko gobernuaren oso bestelako irudia agertzen zaigu gobernatu sufrituoi begien aurrean. Ekonomiaren eta gizartearen kontrola galdu ta dabilen gobernuaren pertzepzioa da nagusi.

Zergatik ez dira, bada, egonkortzen eta garatzen udaberri politikoak gurean? Uda betera heldu ahal izateko, zer heldutasun falta zaie?

Aipatu ditugun hiru kasuotan, prozesu bakoitzak baditu bere ezaugarri bereziak, egia esan; lehenengoan, Espainiako Estatuako koalizio gobernuak, jaiotzatik bertatik lortu zituen babesei esker eta gobernu-osaketan inplikatu ziren eragile zehatzen merituz, udaberriaren promesa indartsua zekarren. Ohiko buruzagi sozialista espainiar oso pitzatuen orde, Sánchezen adar bertitua eta are ezkerreago agertzen zen

Estatu espainiarraren
erreforma saioaren
porrota zertifikatuta
geratu da Pablo
Iglesiasen gobernu
abandonatu duenean

Podemos elkartu ziren koalizioan. Al-daketak burutzeko aukera eta indarra baziren hor, gainera eskuin espainiarra noraezean eta ustelkeriak jota agertzen zen unean. Baina ez dituzte ez indarra ez aukera erabili, horretarako beharra zegoenean: Kataluniarekin duten gatazkan ez dira gauza izan ezer eskaintzeko, Espainiako Estatu ko gobernu guztiek beti egin dutenaz haratago. Monarkia krisi larriak jota zegoen unean, Errepublikaren bidea zabaltzeko pausurik ere ez. Ez lan merkatua aldatu, ez etxeen alokairu politika berria saiatu, ez erreforma fiskalik... Eskuinaren aurkako diskurtsoak bai, baina estatuaren oinarriak sendo finkatuz gai nagusi horietan.

Koalizio gobernuaren beraren krisia baino urrunago, Espainiako Estatu aren erreforma saioaren porrota zertifikatuta geratu da Pablo Iglesiasen gobernu

abandonatu duenean. Ondoren ikusten ari garena, udaberri laburregi baten atzetik betiko neguaren etorrera baino ez da.

Kataluniaren kasuan, dagoeneko nabaria da era horretako prozesu mamitsu, larri, sakon eta erabakigarri baten zuzendaritza ezin dela alderdi zehatz baten, kasu honetan ERCren interpretazio aski bitxi eta aldakorren menpe utzi. Katalunian lortu den herritarren mobilizazio eta antolakuntza mailak, bate-tik, eta independentziaren helbururantz emandako urratsek, bestetik, akordio estrategiko sendo eta sakonak eskatzen dituzte orain. Horiek gabe ez dauka zentzurik koalizio-gobernu artifizialak saiatzeak. Ez badugu, berriz ere, udaberri-tik negura jauzia egin nahi.

Zer esan Euskal Autonomi Erkidegoan eta are Euskal Herri osoan gertatzen ari denaz. Kudeatzaile onaren mitoa lurretik erori zaio Urkulluren gobernuari: krisialdi egoeran erabaki larriak hartu behar eta ahalmenik ez, Madrili erre-guka. Azpiegituretan, gobernu-proiektu guztiak zuloan. Industria politikan, enpresariei beti amen esateak dakarren ondorioa, Zaldibar baino haratago, Tubacex, Euskaltel, BBVA, Iberdrola, Petronor eta enparauen "itzaleko gobernu erreala" nabarmen. Urkulluren Jaurlaritzak galdu du aginte-lemaren kontrola hain justu gizarte krisi larriaren erdian.

Helburu argiak betetzera datozen gobernu sendoak behar, han eta hemen. ●

Beste edozein giza talderi aitortzen diogun berbera



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Frustrazioa. Denok esperimentatzen dugun emozioa. Beharrezkoa. Beldurra, tristura eta beste emozio negatibo guztiak bezalaxe. Zelan konaturatu, bestela, gure bizitzetan zerbait ondo ez dabilela? Eta humanoa da, guztiz humanoa eta uste baino ohikoagoa, frustrazioari ematen zaion erantzuna agresibitatea izatea.

Gauza jakina da honen *geurezkoa* den jokabide honi probetxua ateratzean datzala injustizian oinarritzen diren sistema politiko-ekonomikoen funtsetako bat. Kapitala hala babesten da, hala desbideratzen du beragandik arreta: langileak langileen kontra jarrita. Eta, faxismoaren berpizkunde honetan, balizko dianak eta etsaiak batere konplexu barik seinaltzeari ekin zaio. Izan ere, gure frustrazioak ordainarazten ditugunean, maizegi gure agresibitatea ez dugu frustrazioaren sorbururantz jaurtikitzen, erraz menderatuko dugun beste baten kontra baizik: izan emakumeok, izan migranteak, izan sexu-genero disidenteak, izan hirugarren pisuko auzokidea... egoera ahulago batean dagoen edonor jar daiteke jopuntuan.

Erraz irensten den bidea da hau. Humanoa, humanoegia delako, gure indarrak alde aurretik neurtu, akordatzaka

edo inkontzienteki bada ere, eta konaturatzea benetako etsaia boteretsuegia dela, baita kontrako ahaleginetan has-teko ere.

Ez al da familia tradizionalaren defentsa parametro horietan ere ulertu behar? Familia tradizionala, denaren gaineratik, *pater familias* eta honen *patria potestas*-en inguruan eratzen da. Etxea, *gerlariak* deskantsua hartzeko tokia; familia, kanpoko umiliazioei, transzendentziarik ezari eta balio zein balore faltari buelta eman ahal izateko tokia. Feminismoak ondo daki honetaz.

Honela, umeteriaren kontrako erasoak ere batere konplexu barik biderkatu dira, giza talde oso baten gizatasuna zalantzat hartzen duten purrustada eta zakarkeriez. “Seme-alabak nireak dira eta eurekin nahi dudana egiten dut”, hori ere bada, antza, askatasun deitzen dutenaren adibidea. Okerrena da kontzeptu hau, beste batzuk ez bezala, ez dela ideia zoroa asko eta askorentzat.

Ez dut esan nahi horrelakoen kontra egiten ez denik. Inolaz ere ez. Baina pauso bat aurrera eman beharra igartzten dut faltan. Hausnarketarako, apaltasunez, utziko dudana ideia da. Azken batez, honen inguruko hausnarketek, eremu politiko eta sozialean ez ezik, ere-

mu pertsonalean ere egin beharrekoak direlako.

Erreka haizea liburuan azaldu nuen “*infantia*” berbaren antzinako esanahia: “ahotsik ez daukana”. Infantea ez da hitz egiten ez dakiena, baizik eta jende aurrean hitz egiten ez duena, esateko daukana azalarazten ez duena. Ordutik hona hori ez da aldatu: ahotsa lapurtu egiten zaie umeei. Euren eskubideen alde egiten denean ere, babes eta asistentzia ikuspegitik baino ez da egiten, sekula ez ahots propioaz iritzia emateko edo jendartean aktiboki parte hartzeko. Zaila egiten zaigu beste edozein giza talderi aitortzen dioguna haurreriari ere aitortzea, bere espezifikotasun guztiekin bada ere.

Etorkizuneko hainbat arazo psikologiko sakon ere ekidingo genituzkeelakoan nago, gure haurtzaroa desmitifikatu eta bere gordintasunean gogoratuko bagenu, gure aurrekoen jokabideak, jokabide posible bakarra balira bezala errotzeari utzi eta errepikatuko ez bagenu. Oraingo nagusi bakoitzaren barruan oraindik egon badauden iraganeko haur eta nerabeak bilatuko bagenu, pasatutako sasoi haiek ahaztea errazagoa izan arren. Adinkeria zintzotasunez aztertuko bagenu. ●

Konplotak



ANUNTXI ARANA
ANTROPOLOGOA

Pil-pilean dabilta konplotak Ameriketarik honaino: COVID-19 planetako jendezioa murrizteko sortu dutela eta iraun lezaketanak txerto zitalen bidez kontrolatu nahi dituztela. Horretan badu zerikusia azken berrogei urteko finantza-kapitalismoak. Sektorre publikoen pribatizazio eta ongizate sistemaren desmantelatze planak gora doaz ziztuan (kaxu! hemen auzolanean, diosku Zakilixutek) eta bereziki errudun dira agintariak, pandemiaren kudeaketan baino areago. Engainatuak eta desjabetuak sentitzen gara, eta orain hertsura ekarri digu gainera osasun krisiak. Hainbeste atsekaberi zentzu bilatzeko premiak, ausaz, denen atzean asmo kriminala sumatzera eraman du.

Aurrekari zaharrak ditu konplotismoak eta ezaguna da Aro Modernoan sorginen pertsekuzio izugarria ekarri zuena. Ustekeria batean finkatua zen: milioika malefikok sare bat bilbatua zutela deabruaren inguruan, haren agindua ezartzeko Elizaren eta Estatuaren aurka, gaitz eta eritasuna denetara zabaltzeko. Konplot horri gerlaz garaitu behar zitzaioela-eta, buru-belarri aritu ziren epaile eta juristak, erlijioso zein laiko: berek asmatutako lokamutsa sinetsi eta erabili zuten 50.000 bat lagun hiltzeko, gehienak emakumeak.

Gauza baten inexistentzia ezin da de-

mostratu eta konplotistak gezurtatzeko balio duen azalpenik ez da, beti eta denetarako daukate erantzuna, errugabetzeko saioa akusazio bihurtzen da: torturapean ere beren inozentzia aldarrikatzen zuten sorginek deabruaren laguntzari esker egiten zuten, hark emana baizik ez bailiteke halako kemenik eskura. Aitortzen zutenak baino errudunagoak ziren haiek, indarra izateko haurrak labean erre eta jan behar zituztelako. Lehen kristauei leporatu zieten krimen berdina egozten zieten sorginei-eta juduei-.

Inprimategiak demonologoen delirioa bezala, internetek konplot teoria hedatu duela esaten da. Alta, funtsezko diferentzia bada, ordukoan ahaltzuek zuten konplota pentsatu, orainon bereaiek daude susmopean. Haietarik asko jendediaren etsaiak izanki, onartezinaren aurreko erresistentzia eta izpiritu kritiko asko bada salaketan. Salbu salbuespenak. AEBetan Trumpen gurtzaile supremazistak dira salatzaileak, QAnon ingurukoak eta beste, eta pedofiloen aldra satanikoak gobernatzeko duela mundua predikatzen dute. Haurren defentsan, baina bada ezpada ere, pederastia frogatua den lekuetara ez dute begiratzeko. Berdin du, deus ez aurkitzekotan, eliteek beren ustelkeria estaltzeko adina nagusigo duten seinalea baizik ez da. ●

Liburutegian



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Itxialdi erabatekoan eta oraingo askatasuna deitzen dugun honetan egin dudan gauza produktibo bakarrenetakoa izan da liburuak ordenatzea. Konturatu naiz batzuk errepikatuta ditudala, eta ez dakidala nori oparitu, niri interesatzen zaizkidan gauzak beste batzuei interesekoak ez zaizkielakoan. Beste batzuk faltan sumatzen ditut, eta neure buruari agindu diot etorkizunean eskuzabala izaten saiatuko naizela liburuak uzteko lanbidean izan ezik. Izan ere, liburuak gero eta gutxiago irauten dute liburu dendetan, eta ateratakoan erosi ez nituen liburuak

eskuratzea zaila izaten da maiz. Ez dakit zer egin hil direnek oparitu zizkidaten liburuekin. Ezin dut ahaztu noizbait norbaitek nigan pentsatu zuela liburu bat erosteko. Eta min ematen dit. Horiek herriko liburutegira eraman ditut, noizbait behartuz gero eskura izateko. Gaur egun lagunak ez ditudan horiek noizbait oparitutakoak bota egin ditut kontainer batera. Ez dut nahi inoiz bigarren eskuko dena batean aurkitu. Liburuekin ez bezala, dolu gabe galdu nahi nituzke lagunak. Eta haien arrastoak ezabatzen saiatzen naiz horregatik. ●

Aroztegia



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Euskadin bada lege bat (2016koa, uste dut) EAEko udal guztiei Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko betebeharra ezartzen diena, proiektu berri bati ekitean. Lege hori garatzen duen dekretu batek, bere aldetik, zera esaten du hitzez hitz: “Udalerriek ondoren zerrendatzen diren plan eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dute, bai eta horien funtsezko aldaketenak ere, baldin eta euskararen erabileran eragina izango badute”. Ebaluatu beharreko plan eta proiektu horien artean, proiektu turistikoa daude, noski, besteak beste.

Nafarroan ez dago halako legerik; hortaz, Lekarozko biztanleria bikoiztuko duen Aroztegia proiektuak zer eragin linguistikoa edukiko duen Lekarozen –eta are Baztan osoan–, ez da ebaluatuko. Ezta beharrik ere, denok dakigu-eta eragina birrintzailea izango dela (euskararentzat, jakina).

Ez da erraz ulertzen. EAJk babestu nahi ditu herri txikietako hizkuntza usadioak (EAEn), baina Geroa Baik ez

EAJk babestu nahi
ditu herri txikietako
hizkuntza usadioak
(EAEn), baina Geroa Baik
ez du (Nafarroan) halako
irizpiderik erabiltzeko
beharrik ikusten.
Zer dela-eta?

du (Nafarroan) halako irizpiderik erabiltzeko beharrik ikusten. Zer dela-eta? EAJ sozioberdeagoa da bere burua halakotzat duen Geroa Bai baino? EAJ-erentzat Nafarroa eta Iparralde nolabaiteko “atzeko patioa” baino ez dira, non euskal metropoliko eliteek atsedean har dezaten edozer egitea libre baita? Birtartean, Etchebest Etxalde elkartekoak,

prentsan, maiatzaren 3an: “Guk eza-gutzen ez dugun mundu dirudun bat heldu da Ipar Euskal Herrira. Diru anitz dute eta, aldiz, bertakoek ez dute mozkin gehiago eta ezin dute hemen gelditu”. Hori bera da garapen eredu posible bakarra Baztanen?

Alferrik dira politikariei maribistarako hainbeste gustatzen zaizkien termino dotore horiek (“lurraldearen antolamendua”, “garapen jasangarria”, “eskualdeen arteko oreka”, “udal autonomia”...). Behin berrirori ongi agerian geratu da Nafarroa elite ekonomiko baten Iruñetik zuzentzen duen kortijo bat dela. “Aldaketa” bakarra, orain beste batzuek lortu dutela sudurra sartzea lehen UPN eta PSNrena baino ez zen barrutian.

Norbait autobusak antolatu beharko lituzke, balizko etxe berrien balizko erosleak etor daitezten ikustera bertatik bertara etxeko sala eskobatuko dizkien lamiak eta kafesnea zerbitzatuko dien basajaunak, ea Dolores Redondok pintatu irudiarekin bat datozen. ●

OPARITU ARGIA
ZAINDU NAHI DUZUN HORRI

ARGIA Puska dezagun izotza

Paseo bat ematera edo mendira zoaz?

APP ((112)) SOS Deiak




Eraman ezazu mugikorrean **SOS-Deiak 112** aplikazioa, orain **geolokalizazio**-zerbitzua dauka



Bide Segurua

Arrisku-eremuetarako zure unean-uneke kokapena

Eskura ezazu



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

COVID-19A ESPETXETAN

Besarkadarik gabeko urtea Renneseko presoontzat

Renneseko (Bretainia, Frantziako Estatu) kartzelan preso gaituzten emakumeak hainbat dibisiotan bananduta gauskate. Dibisio bakoitzean 20 ziega daude. Egunotan, gurean, A3 dibisioan, hamazortzi emakume gaude: hamazortzi adin, hamazortzi jatorri, hamazortzi kolore, erlijio eta bizitza ulertzeko modu; ezberdinak bai, baina denak *galère* honetan bat eginda, harresi hauen artean gatibu, ohikeriazko elkarbizitzan, ez-ohiko garai pandemiko distopiko honetan.

 ITZIAR MORENO MARTÍNEZ

Soniak –bere benetako izena ez den arren, egiazko gertaera da, zoritxarrez–, hemezortzi horietako batek, bere burua urkatu du gaur. Kable luzagarri batekin lepoa inguratu eta bizitzan zintzilik geratu da, dilin-dalan, heriotza noiz etorriko. Hemezortziotako beste batek ireki du bere ziegako atea eta, hari esker, balantza makabro horretan, bizitzak irabazi du gaurkoan. Ez da beti horrela gertatzen, besteak beste, gaur bezala, kartzelari eta kartzela-medikuek denbora gehiegi hartzen dutelako ziegarraino heldu eta preso artatzeko.

Zerk bultzatu du Sonia muturreko erabaki hori hartzera? Egoeraren ezinegonean, ohartu naiz ez dudala Soniarekin apenas hitz egin. Badakit etxetik urrunegi dagoela eta ama gaixorik duela, baina gure dibisiora duela gutxi heldutakoa denez, *politesse* esaldi bakar batzuk bai-

no ez ditugu trukatu. Horrek, nola ez, zer pentsatu eman dit. Elkar entzun, elkar ulertu, elkar zaindu eta laguntzea, gaur eta hemen, inoiz baino gehiago, bizirik irauteko ezinbesteko tresnak ditugu!

AZKEN KATE-BEGIEN AHOTSAK

Pandemia garaia kartzelan nola bizi (izan) dugun kontatzeko galdegin didazue. Pandemiarik gabe ere, presoak jendartearen azken kate-begia izan ohi gara –edo azkenetakoa, zoritxarrez, beti baitago okerragorik–: sistemaren biktimak edota aurkariak, jendarteak berak ahaztuak. Zer esanik ez, larrialdi garai honetan. Agerikoa da, ontsalaz, presoak eta presondegiak ez daudela gobernuen lehentasunean artean; bada, *azkentasunen* artean gaudela egiaztatu dugu orain.

Gaixotasunaren aurrean biderik errazena erabili dute gurekin, kartzelak itxiz

eta aurretiaz eskasak ziren eskubideak guztiz ukatuz –biderik interesatuena aldi berean. Kanpoan bezalatsu, herri-tarrak nola presoak hala, gu gehiago kontrolatzeko eta estutzeko-. Aitzitik, euskal presook, errepresio berezitua pairatzen dugun honetan, gure herriaren elkartasunaren lastairaz goza dezakegu zorionez. Horregatik, gaurkoan ahaztuetan ahaztuei, albistegi eta egunkarietan ahotsik ez dutenei, alegia gaintzeko emakume presoek hitza ematea deliberatu dut.

Egun hauetan dibisioan, patioan... gurrutzatu ditudan emakumeei hurrengo galderak luzatu dizkiet: zelan bizi izan duzu pandemia garai hau kartzelan? Ezberdintasunik antzeman duzu orain arteko kartzelaldiarekiko? Zeintzuk dira zure sentimenduak azken urte honekiko? Zer daukazu esateko, kritikatzailako, salatze, aldarrikatzeko...?



ISOLAMENDUARI ISOLAMENDU ERANTSIA

Euren erantzunen aurretik, ostera, hona hainbat argipen. Frantziako kartzeletan, pandemia hasi zenean, hiru hilabetez egon ginen bisitarik gabe –muga zeharkatu behar zuten senideentzako, aldiz, lau hilabete izan ziren–. Geroztik, aurretiaz baino bisitari askoz gutxiago etortzen dira preso dauden emakumeak ikustera, bidaien ohiko zailtasunei larrialdi neurrien ondorioak gehitzen zaizkie: etxeratze-aginduaren ordutegiak, garraio murrizketak, kaleratzeen/egoera ekonomikoaren ondoriozko diru galerak, muga zeharkatzeko PCR bat egin behar izatea... Senidea kutsatzeko edota norbera kutsatua izateko beldurra hor dago. Kartzelak berak jartzen ditu zailtasun erantsiak: bisita eta bisitari kopuruaren murrizketa, bisita-gelaren banaketa sistema, tar-te luze batean ume bakar bat sartu ahal izatea –amak seme-alaba gehiago eduki arren– edota umeek euren amak ezin ukitzea/besarkatzea... Horrek guztiak eragiten du pandemia aurretik ikustaldi egunetan beteta edo ia beteta egoten ziren lokutorioak (dozena inguru dira Rennesen), gaur egun ia hutsik egotea.

“ Presoak eta presondegiak ez daude gobernuen lehentasunean artean; bada, azkentasunen artean gaudela egiaztatu dugu orain”

Aldiro bi edo hiru preso baino ez gara joaten bisita geletara eta, maiz, ni bakarrik noa... ia 200 emakume gauden kartzelan! Nire senide eta lagunak ere zailtasunak izan dituzte hainbatetan bisitara heltzeko aipatu arrazoiengatik eta, kartzelan bete berri ditudan hamar urte hauetan es-

treinakoz, asteburu bat baino gehiago bisitarik gabe igaro dut. Udan bi UVF (Estatu Frantseseko kartzeletan egiten diren aurrez aurreko bisita luzeak) egiteko aukera izan nuen, baina bestela urtebete daramat senideak eta lagunak besarkatu barik: bateko, bisita geletan banaketa sistema ezarri dutelako –Espainian ez bezala, Frantziako lokutorioetan bisita arruntetan ez dago etxekoengandik banatzen gaituen kristalik–; besteko, udaz geroztik ez baititugu berreskuratu delako UVF horiek.

ESKUBIDE MURRIZTUEI MURRIZKETA

Kartzelan berez urriak diren eskubideak mehatzu dizkigute azken urtean, bestalde: lan egiten duten emakumeak hiruzpalau hilabetez egon ziren lan egiteko aukerarik gabe, horrek eragiten dien diru galerarekin: ezin oinarritzko produktuak erosi, ezin etxera dirua bidali, eta abar. Urte oso bat daramagu aktibitate gabe, udako parentesia salbu. Formakuntzak (etenekin) edo lanak baino ez dituzte baimentzen. Eskola ez, ordea, eta ez dago lanik preso guztientzat, urrundik ere. Kiroldegiaren eta liburutegiaren erabilera asko mugatu digute, eta maiz ez dugu joateko aukerarik ere. Aktibitate kulturalik ez dugu, patio ordutegiak erdira laburtu dizkigute urtebetetik hona...

Zigorak gehitzen dizkigute osasun krisiaren aitzakiarekin; hala nola, UVF bakan horien edota kanpora ateratzeko baimenen ostean hamalau eguneko konfinamendua ezartzea. Konfinamendua zigor baldintzetan betetzen dugu, bakarrik eta inolako aktibitate gabe. Aldiz, kartzelariak egunero etortzen dira kaletik kartzela barrura eta nekez betetzen dituzte segurtasun neurri gutxienekoak ere. Zigortu egiten gaituzte baina ez digute inoiz testik egin, isolamendu luzeak ekiditeko edota kartzela honetan birusa sartu denetz frogatzeko, behin eta berriz eskatu eta salatu badugu ere.

Gauzak horrela, hona Renneseko kartzelako hainbat emakumeren lekukotzak:

Itziar Moreno Martínez

Bilbo

2011ko apirilean atxilotu zuen Poliziak Creusen (Frantziako Estatu) tiroketa baten ostean, Oier Gómez gasteiztarrarekin batera jendarmeen errepideko kontrol batetik ihes egiten saiatzean. 2016an 15 urteko espetxe zigorra ezarri zioten Parisko epaitegiek. Dijon, Seysses, Fresnes, Fleury eta Renneseko espetxeak ezagutu ditu bere espetxealdian. 2022 amaieran edo 2023 hasieran beteko du bere zigorra Frantziako Estatuan, baina Espainiako Estatuak bere aurkako euroagindua eskatua du.



“Kontakturik gabeko bisitak oso deserosoak dira, benetan etsigarria suertatzen zait kontakturik eza, ezin senideak besarkatzea”

“Beldurra ematen dit etxekeekin ezin egoteak, zerbait gertatuko balitzaie euren ondoan ezin egoteak”

“Hemen ez dago ezer egiteko, ez aktibitaterik ez deus; denbora ohi baino geldoago igarotzen da, etsigarria da oso”

“Psikologikoki asko eragiten digu; hemen, biderkatu egiten da jendarteak kanpoan duen pandemiarekiko sentipena, itxialdia ja-sangaitza bilakatzen da, aktibitate eta bisitarik gabe... Hori da pandemiaren alde negatiboa, eta positiboa...? Ez dago”

“Hamalau konfinamendu egun horiek oso gogorak egiten zaizkit: lan egin barik, inor gurutzatu barik... Ziegan erabat deprimitu egiten naiz. Emakume presoon arazo psikologikoak ugaritu egin dira pandemiaren geroztik”

“Bitxia da hau esatea baina ni babetua sentitzen naiz, erabat itxita gaudenez, sentipena daukat birusa ezin dela sartu. Aldiz, kontraesan gehiegi ikusten ditut: kartzelariak maskara nahi dutenean kentzen dute, ez dute inoiz eskularrurik erabiltzen... Ospitalean, COVID-19a lehenesten dutenez, gure gainontzeko gaixotasunak ez dituzte behar beste artatzen”

“Pertsona nagusientzat are zailagoa da egoera”

“Ez dudanez bisitarik inoiz niretzat, zentzu horretan, egoera ez da asko aldatu” [Salagarria da egoera: emakume gehienek ez dute inoiz bisitarik jasotzen]

“Jendarteari oihukatze gogoa daukat: existitzen gara! Presoak, pandemia honetan, ahaztuetan ahaztuenak gara”

“Egun osoa maskara jarrita eraman behar izatea oso nekagarria suertatzen zait. Badakit, kanpoan ere jendeak eraman behar du, baina... kontxo, etxera heltzean kentzen dute! Guk uneoro jantzi behar dugu, eta kentzekotan zigortu egiten gaituzte. Kanpoan isun soil bat dena, guretzat zigorra eta askatasun egunak galtzea dakar”

“Gero eta itxiago gaude, gure eskubideak murrizteko profitatzen dute. Kartzelan askatasuna galtzen da, orain gure oinarrizko eskubideak ere ukatzen dizkigute”

“Nik pandemia aurretik baino bisita gutxiago dut orain”

“Ostra baten moduan sentitzen naiz, egoerak nire baitan ixtera eraman nau. Ez daukat nire familiaren berririk; ez dut entzun nahi etxeko norbait gaixotu denik. Aurretiaz nituen ilusioak galdu ditudala sentitzen dut. Horrela babesten dut nire burua: lehen mundu guztiarekiko enpatia nuen bitartean, orain nire baitan itxi eta babestu egiten naiz”

“Lotsagarria da kanpora ateratzeko baimenen ostean hamalau egun isolatuta igaro behar izatea, apenas ordu pare baterako ateratzen bagara ere”

“Lehen baino itxiago gaude, jadanik ez daukat baimenean ateratzeko gogorik hamalau eguneko isolamenduaren eraginez. Horrez gain, sekulako ezinegona sentitzen dut, ez diet nire seme-alabei gaixotasuna eraman nahi!”

“Nik larritasuna sentitzen dut uneoro. Adibidez, nire ziegatik ateratzerakoan ez dut ezer ukitzen, oihal bat erabiltzen dut atea eta irekitzeko...”

“Entzun behar ditugunak, gainera. Kanpoan dagoen jendeak diosku: zuek itxita egotera ohituta zaudete... Ez ba! Lehen baino itxiago gaude, ez da onargarria”

“Kartzelarien komentarioak ere pairatu behar ditugu, hala nola, ezin garela kexatu kirola egiteko aukera dugulako eta eurek kanpoan ezin dutela gimnasia joan... entzutekoak jaio gara! Ni ez naiz pertsona bortitza baina, batzuetan... zaplada galanta emango nieke, bai!”

“Aktibitaterik gabe erabat galdu-ta nago; asko-asko aspertzten naiz”

“Kultura faltan daukagu!”

“Zapalkuntza gehigarria pairatzen dugu, lehen baino itxiago gaude”

“Ustel hauek ederki profitatu dute, zanpatzen gaituzten torlojuak hamar bider gehiago estutzeko. Beldur naiz, pandemia amaitzean gure ohiko eskubideak berreskuratuko ez ote ditugun”

“Egoera honek apnean jarri gaitu, kanpoko haizea faltan baitugu; denborarekiko insomniora bultzatu gaitu, giza anemian gaude”

“Egoera honek agerian utzi du -aurretiaz baino era latzagoan, bederen- idazteko eta irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen lehen baino aukera gehiago dutela paranoian erortzeko: egun osoa telebistari begira, etengabe neurritz gaineko datu dramatikoak errepikatzen dituzten programei so eta, aldi berean, datu kontraesankorrak esaten dituztenez, ezin norbere iritzia finkatu”

“Emakume presoak, ohikoan, haurren gisa tratatzen gaituzte; bada, orain... kartzela erabateko haurtzaindegia bilakatu da”

“Iruditzen zait bazkariak lehen baino urriagoak direla, agian gastuekin kontu gehiago egiten dutelako... auskalo”

“Inoiz baino behar handiagoa daukagu ukitzeko, besarkatzeko, musukatzeko... aldiz, bizitza artifizial batekin gu erosten saiatzen dira: telefonoan diru apurrak sartzten -atzerrira deitzen dugunontzat hutsaren urrena dena-, aldiro arazoak ematen dituzten bideo-deiekin, telebista dohainik eskaintzen... Horrela nahi gaituzte: egun osoa telebistara begira, tontotuta! Telebista, beti bezala, kartzelak baliatzen duen arma da, gure askatasun apurrak murriztu edota kontrolatzeko”

“Gizakiarekin harremana eta kontaktua galtzen dugun honetan, ez gara salbaiak bilakatzen ere, baina... baina!”

“Hamalau eguneko konfinamendua erabat eskandalagarria da: ez digute testa egiten edota tenperatura hartzen... giltzapetu eta kito!”

“Ez digute aukeratzen uzten zerekin arriskatzen garen. Kartzelariak kanpotik datoz, maskara kendu eta ukitzen gaituzte... hori halabeharrez pairatu behar dugu eta, aldiz, ezin ditugu gure senideak ukitu”

“Kartzelariak, zuzendariak eta abarrek erositako edo etxean egindako musukoak erabiltzen dituzten bitartean guri hori bera debekatzen digute: konfinamenduaren ostean bisitak hasi zirenean, paketeen musukoak sartzea debekatu zigiten; jarraian, zuzendariak baimendu zuen gureak josi edo paketeen oihalezko musukoak sartzea; azkenik, baimendutako hauek janzteagatik zigortzen gaituzte” [Kartzelak banatzen dizkigu egunero hartu-eta-botatzeko musukoak eta, horiek erabili ezean zigortzen gaituzte]

“Kartzela sektoreetan banatu izanak preso gehiagorekin harremana izateko aukera kentzen digu, bakardade sentimendua areagotzen duena”

“Patioak gehiegi murriztu dizkigute, kanpora gehiago ateratzeko beharra daukat”

“Murrizketa hauek guztiak presoek ezkortasuna bultzatzen dute: haserreago gaude, beldurtuago...”

“Kartzelarien jarrera salatu nahi dut: bisitetan senideak mehatxatzen dituzte musukoa, une baterako bada ere, kentzen badute, berdin nagusiak edo umeak badira. Eurek, nahi dutenean kentzen dute beraien musukoa ordea! Hamaika batzen dira beraien gela eta bulegoetan eta guri eskola bera ere debekatzen digute bospasei bildu ez gaitezen... eskandalagarria!”

“Kartzelek estatu baten demokrazia eta askatasun maila erakusten dutela esan ohi da... pandemiarekin ederki ikusi dugu zein den frantziar estatuaren demokrazia maila”

“Administrazioak ez du onartzen ez daukala gaitasunik gure segurtasuna bermatzeko”

“

Renneseko kartzelako hainbat emakumeren lekukotzak



Renneseko kartzela.

Lekukotzekin bat nator, oro har. Bazuk berdin-berdin sentitzen ez baditut ere, ederto ulertzen ditut burutapen horiek guztiak. Ideia pareta gehituko nituzke nire aldetik. Bateko, Frantzia gauden euskal emakume presoak urrunduta eta isolatuta mantentzen gaituztela –eta, ematen duenez, epe ertainera ez dago zantzurik/borondaterik egoera hau konpontzeko–. Lorentxa, Saioa eta ni ne bakarrik gauzkate, etxetik 800 kilometrora, eta Parisen dauden hiru kideak ere, elkarrekin egonagatik, Euskal Herrietik 900 kilometrora daude. Ni kartzela honetan urrun eta bakarrik egoteak nire senideei galera handiak eragiten dizkie, bidaia luzea eta beste senideen laguntzarik gabe burutu behar baitute. Bidaiaren arriskua, nekea eta gastua biderkatu egiten dira. Zer esanik ez orain, muga zeharkatzeko PCR test garestiak ordaindu behar dituztenean. Gasolina, hotela, errepideko ordainsariak eta abarrez gain, pertsona bakoitzeko 80 euro gehigarri opari. Esan gabe doa, gure senideek eraginkorra gutxiago egiteko modurik eraginkorra gu etxean egotea da, hortaz... presoak kalera!

Besteko, esango nuke kontaktu ezak, plastifikatutako bisitek, teknologia berrien harreman-bitarteko artifizialek (bideo-deiak kasu) eta abarrek areagotu egiten didatela arrainontzi erraldoi batean nagoenaren sentipena. Zuek besarkatu ezinik, halaxe sentitzen naiz. Nemo gisa, plastikozko burbuila baten barruan. Ohartu naiz, bai, bisita galerak

eta kontaktu faltak uste baino gehiago eragiten digutela. Euskaldunok, bisitei dagokionean behintzat, “pribilegiatu” batzuk gara kartzelan, esan nahi dut, inork gutxi duela, guk bezala, astebururo-astebururo bisita. Eta noski, jakin badakigu bisitek zenbat ematen diguten:

“Lehen baino aukera gutxiago dugun honetan, trikimailuak biderkatzeko gai gara; pertsonok, emakumeok, presoak... beti topatzen dugu bidea!”

Amatxi preso bat

maila guztietako sostengua, maitasun dosi erraldoiak, alaitasuna barra-barra, aurrera jotzeko indarra, informatuta egotea, gozotasun eta sexu beharren asetzeta, eztabaida eta ekinbide politikorako aukera... kalea barrura ekartzen diguzue edo, hobe, barrukoak kalera ateratzen gaituzue! Gutunekin, deiekin,

bisitekin... zuek zarete gure kanpora begiratzeko leihoak!

ZAILTASUNAK AUKERA BILAKATU

Pandemia egoera honek erakutsi dit –batez ere bisitarik gabe egon ginen lau hilabete horietan– presoak gure baitara barnebiltzen garela leiho horiek ixten zaizkigunean. Orain ohartzen naiz, ni neu ere nire baitara kiribildu nintzela... Aldiz, Sarrik idatzi zuen bezala, “okerrean ere, askatasun apur bat gordetzen da gizabanakoaren gogoan. (...) Harresia zulatzea ezinezkoa denean, askatasuna kanpotik helduko litzatekeen zerbait ez dela, presoak barruan bilatzen du, norbere baitan, eta lagunengan”. Lagunengan, etxekeengan eta gure baitan bilatu eta topatzen dugu askatasun hori, bai horixe!

Azken ideia hori era politean laburbildu zuen 65 urteko amatxi preso batek, nire galderei emaniko erantzunean. Bere hitzekin amaituko dut, hortaz, gaurko gutuna: “Nik zerbait positiboa esateko gogoia daukat: lehen baino aukera gutxiago dugun honetan, trikimailuak biderkatzeko gai gara; pertsonok, emakumeok, presoak... beti topatzen dugu bidea!”. Balio beza ideia horrek, bada, pandemiaren krisiari aurre egiteko. Kapitalismorik basatienaren, giza-kontrol itogarriaren eta konplexurik gabeko errepresio militarren bizkortzearen ginetik, zailtasunak aukera bilakatzeko: orain inoiz baino gehiago, borroka da bidea! Zaindu eta ekin! ●

“Identitate disidenteak asimilatzen doa sistema, heteroaraura moldatuta”

Armairuaz, LGBT mugimenduan bizirik diren eztabaida eta borroka moldeez, sexu askapenaz, lumafobiaz, korronte erreformista eta erradikalaz, hauren identitatearen eraikuntzaz, espazio bizigarriez... aritu gara Hiruki Larroxa kooperatibako Egoitz A. Albeniz eta Ibai Fresnedorekin. Aitzakia: Hernaniko Udalaren Berdintasun arloak sortutako bekatik eta Berdintasun Kontseiluaren eskariz laster kaleratuko duten *Noiz bukatzen da armairua?* liburua, herrikideen azken 50 urteetako bizipenak jasotzen dituenena. "Armairuak hautsi nahi ditugu, baina barruan dagoena zainduz".

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DANI BLANCO



EGOITZ A. ALBENIZ

IBAI FRESNEO

Armairuari buruzko pertzepzio ezberdina dute liburuko solaskideek: errepresio gunea, leku segurua...

Armairu asko daude?

Egoitz A. Albeniz: Gure artean pentsatu izan dugu ea armairuen esperientzia kolektiboa egin daitekeen, eta ezinezkoa litzatekeela ondorioztatu dugu, nahiz eta egitura beraren baitan bizi dugun zapalkuntza partekatzen dugun. *Noiz bukatzen da armairua?* jarri diogu izenburua liburuari, baina agian galderak izan beharko luke “noiz bukatzen da heterosexualitatea?”, heterosexualitateak sortzen duela bizi dugun bestetasun eta indarkeria hau guztia. Indarkeria matxistaren fokua beti emakumeengan jarri ordez fokua gizonengan jartzea aldarrikatzen den moduan, LGBTfobiarekin ere berdin egin dezagun: fokua heterosexualitatean jar dezagun, aztertu dezagun zein arazo sor-

tzen dizkien heterosexualitateak egitura horretatik kanpo geratzen diren disidentzia guztiei.

Moral bikoitz oso potentea ematen da: jendarteak bere buruari arauak ematen dizkio eta gero ulertzen da publikoa ez den esparru horretan, espazio intimoan, beste arau batzuk jarraitu daitezkeela eta nolabait nahi duzuna egin dezakezula zure intimitatean. Horregatik dago armairua, biolentzia ematen delako pribatutik publikorako trantsizio horretan, eta horrek ulertarazi beharko liguke jendarteak bere buruari ematen dizkion arauak oso hertsia direla, aniztasun guztia barne hartzen ez dutenak.

Ibai Fresnedo: Praktika homofobia den bezala pertsona bat seinatu eta maritxua dela esatea, autokritika ere egin nahiko nuke: sexu askapenaren borrokan LGBT pertsonen ikusgaitasunak sortzen

digun grinagatik, batzuetan nolabaiteko presioa eragiten diogu armairuan jarraitzen duenari, atera dadin, eta hori ere bada indarkeria. Oso prozesu pertsonal eta intimoak direnak ezin ditugu behartu. Ikusgaitasunak elkarzaintzarako sare potenteak behar ditu oinarrian, baita autodefentsarako pedagogia sakona ere. Alegia, armairuak hautsi nahi ditugu, bai, baina “barruan” dagoena zainduz.

“

Jende batek, duen itxuragatik, duen maskulinitate edo feminitateagatik, ezin du disimulatu eta beti dago armairutik kanpo, uneoro bizi du seinatze eta indarkeria bat”

Egoitz A. Albeniz

Hain da prozesu pertsonala, ezen batzuentzat babesa da armairua eta beste batzuentzat kartzela. Kontzeptu bera zeinen modu kontrajarrian bizi daitekeen.

Fresnedo: Esango nuke gehiago dela kartzelaren eta babeslekuaren arteko *continuum* bat, gure errealitatea multidimentsionala delako; esparru ugartan ditugu harremanak eta esparru batzuetan kartzela senti dezakeguna beste batean babesleku da, eta hirugarren esparru batean zuzenean ez dago armairurik eta modu askean aurkezten dugu gure burua. Prozesu konplexuak dira eta denak zilegiak.

Albeniz: Eta armairuan sartu-irten horretan ibili daitezkeen pertsonak daude, baina beste jende batek, duen itxuragatik, duen adierazkortasunagatik, duen maskulinitate edo feminitateagatik, ezin du hori egin, ezin du disimulatu eta beti dago kanpoan, uneoro bizi du seinatze eta indarkeria bat. Horrek gogoetara garamatza, ea ez ote dugun armairua ez-tandarazi behar, nahiz eta aurretik ikusgaitasunaz esandakoarekin kontraesanegon daitekeen.

Fresnedo: Aldi berean, armairuak arma politiko ere badira, zure desira, zure ar-



mairua beste norbaitekin partekatzeak eragin bat sortzen duelako; “ez nekien maritxua zinenik” esango dizute, baina “nik ere ez nekien zu heteroa zinenik”. Joko hori ematen du armairuak eta nire kasuan batzuetan hautu politikoa izan da eremu jakin batean informazio hori ez partekatzea, heteroarauari maskara kentzeko beste modu bat izan daiteke-eta.

Albeniz: Armairuan geratzera edo ateratzera bultzatzen zaituzten arrazoiak arrazoi, interesgarria da ikustea behin ateratzen zarenean, duzun identitatearen arabera saritua edo zapaldua izango zarela, heteroarauak berak pribilejiatzen dituelako armairutik atera eta heteroarauaren praktiketara makurtzen direnak. Identitate disidenteak pixkanaka asimilatzen doa sistema: ez ditu hirukotean bizi diren emakume bizardunak nahi, familia bat osatzen duen bikote lesbiana ereduagarria nahi du, klase ertainekoa eta zarata gutxi aterako duena.

Alegia, izan zaitze LGBT, baina “gure erara”. Besteek ematen digute gure identitatea definitzeko zilegitasuna?

Albeniz: Zilegitasuna soziala da, baina zilegitasun sozial hori sistemak berak ematen dituen parametro eta irizpideetatik eratortzen da, arlo politiko, instituzional eta legalak ere definitzen duelako zer den zilegi eta zer ez (erdi den aita batek kontatu du berriki, adibidez, juridikoki ez dagoela aurreikusita halako egoerarik).

Tolerantzia, normalizazioa eta integrazioa bezalako hitzak erabiltzen ditugu, baina tolerantzia boteretik eraikitzen da, eta zilegitasuna berdin: batzuek baino ezin dizute zilegitasuna eman, arauaren barruan daudenek.

Hain juxtu, gaur egun berdintasuna eta aniztasuna moduko kontzeptuak politikoki zuzenak dira, baina diskriminazioak eta zapalkuntzak beste forma bat hartu dute?

Fresnedo: Aipaturiko normalizazio, tolerantzia eta integrazio kontzeptuen bueltan sortu da politikoki zuzenaren diskurtsoa eta diskurtso horretatik instituzioek dominak jartzen dizkiote beren buruari, gizartea aurrerakoa dela eta eskubide markoan eskubideak gehitzen ari garela azpimarratuz. Baina indarkeria sinboliko eta estrukturalak hor jarraitzen du, eta ezkondu edo seme-alabak izan ditzakegulako ez du esan nahi LGBTfobia jasaten ez dugunik. Beste forma bat hartu du, baina ardi-larraz estali-



tako otsoak hor dirau.

Albeniz: Ez dut gustuko esatea historiako une honetan okerrago edo hobeto gaudenik, baizik eta testuingurua eta prozesu historikoa aldatu dela eta LGBTfobia beste era batera ematen dela. Gaur egun politikoki ez dela zuzena LGBTfobia? Eskerrak! Baina azpian dagoen egitura osoak eragiten duen indarkeria desagerraraztea ez dugu lortu.

Fresnedo: LGBTfobia kontzeptuak berak sexu edo genero disidenteak diren horiengan baino ez du jartzen fokua, eta sigla horietatik harago begiratzea falta zaigu, heteroarauak denoi eragiten digulako, arau horietatik kanpo dagoen orori, tartean emakume heterosexualei, esaterako.

Heteroarauak denoi eragiten digu, baina batzuei besteei baino gehiago, ezta? Interseksionalitatea kontuan hartzen badugu, profil batzuek

“

LGBT borrokak beti izan du klase ikuspegia, juxtuki borroka horretan lerrokatu diren subjektu eta gorputzak izan direlako prekarizatuenak, marjinatuenak”

Ibai Fresnedo

besteek baino zapalkuntza handiagoa jasaten dute.

Albeniz: Interseksionalitatea edozein prozesutan aintzat hartzea behar-beharrezkoa dela uste dugu Hiruki Larroxan,

gure eguneroko bizipenak aztertzetik hasita. Ikuspegi interseksional batetik lan eginda lortzen da norberak bere ziliborrari begiratzeari uztea, ulertzea gure artean indarkeria-bizipenak elkarlotuta daudela eta zuzenean gure borrokari lotuta ez dauden beste kolektibo, militantzia eta elkarrekin zeharka gurutzatuta gaudela, modu batera edo bestera. Interesgarria da ikustea gaitasun bat sortzen ari dela elkar topatzeko, elkarrekin lan egiteko eta norberaren lekua aurkitzeko zapalkuntza eta erresistentzia harreman horren barruan.

Oso orokortuta dagoen fobia da lumafobia, baita LGBT kolektiboaren barruan ere.

Albeniz: 2008tik aurrera mugimendu transfeministak azaleratuko du batez ere LGBT borroka ere badela feminismoaren borroka, eta lumafobia zehazki patriarkatuaren eta matxismoaren isla argia da. Maritxuen artean ere badago misoginiarekin lotzen dugun fenomeno hau: femeninotasunera gerturatzen den oro da zerbait mespretxagarria, edo ez desiragarria, edo pasiboa. Bada, maritxu izateak balio behar luke birplanteatzeko nola konfiguratzeko den gure desira, zer nolako gizartea dugun, zergatik ibili behar izan dugun jipoiak jasotzen... eta gutxienez guk ez genuke birproduzitu behar. Baina gure artean gero eta misoginia handiagoa eta gero eta gorputz normatiboago eta maskulinoagoak ikusten ditugu. Hori da bilatzen genuena? Zapalduak izan ostein, nerabezaroan sufritu ostein, jendarteko matxismoa birproduzitzen jarraitu nahi dugu, gizon izatearen arautik ateratzen denaren kontra?

Dikotomia interesgarria planteatzen duzue liburuan, LGBT borrokaren barruan: korronte erreformista – heterosexualek dituzten eskubide berak lortzeko borroka – vs korronte erradikala –erregimen heterosexuala iraultzea helburu–.

Albeniz: Korronte erradikala da bidea, baina bitartean bizi egin behar dugu eta eskubideak arautzea behar dugu ez gaitzaten zapaldu. Nik ez dut ezkontza nahi instituzio bezala, baina desagertzen ez den bitartean ez dut nahi jendeak hutsune legalak izatea, ezkontzeko eskubiderik ez duelako.

Fresnedo: Hain juxtu, ikuspegi erradikala ez da eskubide markoarekin kontrajarria, beti egingo duelako eskubideen

alde, kontua da ikuspegi erreformistak kokatzen duela eskubide markoa heteroarauaren baitan eta ez oinarritzko giza eskubideen markoan. Erreformismoak planteatzen du heteroarautik at kokatzen direnak heteroaraun sartzeari, horretarako mekanismo legal, sozial, juridikoak martxan jartzea. Ikuspegi asimilatzailea da eta izan dituen bi borroka ezagun dira ezkontzeko eta seme-alabak izateko eskubideak, baina korronte erradikalak erroetan jartzen du arreta, oinarritzko eskubideen alde egin behar dela azpimarratuz: etxebizitza, osasuna, hezkuntza...

Euskal Herrian tentsio oso markatua dago bi ikuspegi horien artean; laburbilduz, ikuspegi erradikala dugunok sexu berekoen arteko ezkontza babestu genuen, baina erreformistek ez dute borrokatuko gizarte ez bitar baten alde, ez dute bat egingo gure borrokekin.



Lumafobia dela-eta, gero eta misoginia handiagoa, gero eta gorputz normatiboago eta maskulinoagoak ikusten dira maritxuen artean. Hori da bilatzen genuena? Zapalduak izan ostein, jendarteko matxismoa birproduzitzen jarraitu nahi dugu?"

Egoitz A. Albeniz

Ikuspegi erradikala defendatzen duzuen heinean, nola hartzen duzue entzun behar izatea aniztasunaren borrokek klase borrokari kalte egiten diotela?

Fresnedo: Kritika suntsitzaileak jaso ditugu azken urteetan, inter-klasistak garela, liberalak... eta guk dioguna da LGBT borroka baino, sexu askapena dela gure borroka eta askapen prozesu horren baitan paraleloki askapen guztiak defendatzen ditugula, guztiak dutelako jomuga bera. Gainera, LGBT borroka

beti izan da klase ikuspegia izan duen mugimendua, juxtuki borroka horretan lerrokatu diren subjektu eta gorputzak izan direlako prekarizatuenak, marjinatuenak eta bazterrekoak, hasiera-hasieratik. Mugimendu antolatu ezkertiar eta iraultzailea den heinean, diskurtso marxista, leninista, komunista eta anarkistaren bueltan aritu da beti. Kontrako argudioa erabiltzen dutenak borroken arteko mailaketa egiten ari dira, eztabai da polarizatzen eta batez ere pribilegioetatik hitz egiten. Nekagarriena da ez dela auzi berria, ziklikoa baizik, bukle antzua.

Albeniz: Kritikak nondik datozen ulertu dezaket, beste borrokek bezala LGBT borroka ere zuzitzen dabilelako kapitalismoa (kapitalismo arrosaren bidez), baina esatea queer mugimendua ari dela langile klasea desmobilizatzen ez da egia. Izatekotan, LGBT mugimendutik seinalatzen duguna da klase borrokan dauden hutsuneak sexu askapenari (eta matxismoari) dagokionean, eta autokritika egiteko balio beharko lieke. Denok dugu zer ikasia elkarrengandik eta horregatik hobe da nire borroka zure bizipenen kontra planteatu ordez elkar-guneak topatu eta modu eraikitzailean aritzea, zeren eta nik ere esan dezaket haien borrokan denak zisgizonak, zuriak eta klase ertainekoak direla.

Fresnedo: Kontua da identitate borroka kritikatzeko dituztela, baina egiten dituzten kritikak gehiago dagozkie instituzioetan garatzen dituzten identitate politikari: erakundeetan LGBT politikak sortzen ari dira, "single issue" edo gai bakar gisa lantzen dituztenak, planteamendu kapitalista batetik, ez direlako politika interseksionalak eta liberalismoan oinarritutako politikak zuzitzeko estrategia delako.

Kapitalismo arrosa bide berean doa: gure borrokaren aldarrikapenak instrumentalizatu eta interes kapitalista eta komertzialen alde egiten dute. Bilbao Bizkaia Pride da horren adibide argia. Gainera, kapitalismo arrosak interesatzen zaion profil jakin baten oinarri ekonomikoa hartu (gizon homosexual zuri burgesa) eta industria espezifikoa sortu du horren bueltan, baina hori ez da LGBT komunitatearen isla.

Medeak mugimendu transfeministaren sorreraz hitz egiten da liburuan: aldarrikatu zuten emakume biologikoa ez, heteropatriarkatuaren aurka dauden gorputzak behar dutela izan

subjektu politikoa. Espainian egosten ari diren Trans Legeak eztabaida bera mahaigaineratu du berriz ere.

Albeniz: Eztabaida antzua eta artifizialki inportatua dela iruditzen zait, hamabost urtetan ez dugulako eztabaida hori hemen ikusi, bat-batean adieraztea emakumeen subjektutasuna lapurtuko dutela emakume transexualek. Gorputzak ez du zure generoa egiten, aspaldi gainditu tako eztabaida da.

Fresnedo: Medeak taldeak bere planteamendua egin zuenean ere, ahizpatasunak eta erresistentziak izan zituen feminismoaren baitan, baina eztabaidak eztabaida elkarbizitzarako eta iritzi-trukerako prestutasuna ikusi izan dut beti. Orain sortu den polarizazioa eta toxizitatea Estatutik etorri dela iruditzen zait. Hiruki Larroxan gaur egungo testuinguruan ez dugu gure burua feminismoaren subjektutat hartzen, baina transfeminismoan kokatzen gara, uste dugulako feminismoaren subjektu politikoa zabaltzea dela interesgarriena, ez dela esentzian oinarritu behar, posizionamendu politiko batean baizik. Eta gure posizionamendu politikoa argia da: heteroaraua suntsitu nahi dugu.

Liburuan ikusten da heterosexuala ez den haurrak, nahiz eta batzuetan oraindik hori oso ongi ez jakin, bere identitatea osatzen ari delarik sarri identitate horrekiko iraina eta mespretxua jasotzen duela besteengandik hasieratik. Nola eragiten du horrek norbere identitatearen eraikuntzan?

Fresnedo: Normalean lehenengo datoz muga eta araua, eta ondoren eraikitzen gara gu, eta mugek eta arauak biolentzia dakarte, beraz biolentziatik sortzen gara. Irainetatik hasten gara ulertzen zer den ez bakarrik era bateko edo bes-

teko desira, baita heteroaraua bera ere. Egunero ikusten dugu eskoletan: genero adierazpen jakin bat duen neska-mutilak irain homofobia jasoko du, jakin aurretik homosexualitatea zer den ere. Ez dugu gure sexualitatea nola garatu aukeratzetik, arautik at etiketatzen gaituztelako hasieratik eta etiketa horretatik abiatuta garatu behar dugulako gure sexualitatea.

Albeniz: Eta kontuan hartu behar da oso pertsona gazteak direla eta oso azkar ikasi behar dituztela estrategiak bizi-raun ahal izateko.

“

Haurrak garelarik, irainetatik hasten gara ulertzen zer den ez bakarrik era bateko edo besteko desira, baita heteroaraua bera ere. Arautik at etiketatzen gaituzte hasieratik eta etiketa horretatik abiatuta garatu behar dugu gure sexualitatea”

Ibai Fresnedo

Bestalde, gehienbat zigortzen dena genero disidentzia da, ez hainbeste desiraren orientazioa. Marikoia deitzen dizutenean ez dira esaten ari sexu harremanak dituzula beste mutil batekin, zure genero adierazpena femeninoa dela baizik, eta femeninoa izatea da ahula,

koldarra eta patriarkatuaren ordena sinbolikoan bigarren mailakoa izatea, berriz ere misoginia eta matxismoa daude atzean. Harreman parekide eta osasuntsuak lantzeak funtsezkoa izan beharko luke hezkuntzan.

Kolektiboaren babesleku diren espazio fisikoen garrantzia azpimarratzen da liburuan, “espazio bizigarriak” norbera den bezala adierazteko. Ala ghetto bihurtzeko arriskua dute?

Albeniz: Ghettoei kritika egiten dienak ez dio bere buruari galdetu ea zergatik sortu behar izan duen espazio horrek; agian erantzuna da zure herria ez dela uste zenuen bezain irekia eta horrelako gune bat beharrezkoa dela. Jakina dela inportantea espazio propioak izatea, hirien egiturari, aisialdi ereduari, jendar-tean... oraindik ere heteroaraua nagusitzen delako.

Fresnedo: Gizarte honetan, bizimodu hetero bat izan dezagun eta arauari sar gaituzten asimilazio prozesu bat jartzen da martxan; horrek nahitaez eramaten gaitu ghettoak sortzera, garena libreki garatu ahal izateko espazioak behar baititugu. Baina aldi berean, zentralitatea duten espazioak, espazio heterosexualek, iraultzea izan behar da gure helburua, espazio askatzaileetan garatzen ditugun praktikak zentrori ekartzeko kapaz izan behar dugu. Bi espazioak dira inportanteak, beti zure ghettoan bazaudete ez duzulako ezer eraldatuko.

Albeniz: Eta espazio propio horiek ere eragiten dute beste espazio hegemonikoetan: Hernanin Karbonera gunea inportantea izan zen herria marikonizatzeke eta bollerizatzeke, bertako praktika askatzaileak abiapuntu izan zirelako beste espazioetan ere hainbat gauza egin ahal izateko. ●

BAGARA BAGAÚDE

MAIATZAK 17


LGTBIQfobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna

steilas

BIOANIZTASUNAREN PISUA EKONOMIAN

EKOLOGIA DA, ERGELAK!

Zenbat balio du bioaniztasunak? Esan liteke klima larrialdi betean eta Covid-19ak astinduriko munduan, natura deuseztatzearen kostuz jabetzea kostatzen ari zaigula, hala ere. Partha Dasgupta ekonomialariaren txosten bat bolo-bolo dabil, ohartarazten baitu atzera bueltarik ez duen mugara iristen ari garela. Honen esanetan, Barne Produktu Gordina eta antzeko adierazleak alboratu beharko genituzke eta bioaniztasuna ekonomiaren erdigunean jarri.

 URKO APAOLAZA AVILA

Henry Way Kendall (1926-1999), eskalatzailea zen, fisikako Nobel sariduna izateaz gain, eta Yosemiteko hormetako artekatan ikasi zuen laborategietan ezin zue-na aire librean preziatzen, Floridako haitzulo bateko ur-jauziari argazkiak ateratzen ari zela erori eta hil zen arte. 1992an *Gizateriari ohartarazpe-na* idatzi zion, beste 1.700 zientzialarik ere sinatua, esanez “gizakiak eta natura talka egiteko bidean” ginela.

Hogeita bost urte geroago, 2017ko azaroan, beste agiri bat argitaratu zuten mundu osoko zientzialariek: bigarren abisua. Oraingoan 15.000 sinadura baino gehiago, zientzia ar-

tikulu batek inoiz izan duen babesik handiena jaso du agiriak. Honen araber, oraindik ez ditugu etxeko lanak egin, tartean hazkunde mugagabea oinarrituriko ekonomia errebisatzea edota ekosistemak berreskuratzea. Itzulerarik gabeko toki ezezagun baterantz goaz.

Hori da hain justu Partha Dasgupta Cambridge Unibertsitateko ekonomialariaren eskutik ezagutu dugun ikerlanaren ondorio nagusia: ekosistema ugari, izan koralen arrezifeak nola oihan tropikalak edo etxe ondoan ditugun mendiak, atzera bueltarik gabe kaltetu ditugu eta “inflexio puntu” hori gurutzatzeko zorian gara.



BIOSFERA

Kapital naturala kontuan hartuko duen adierazlea behar dela dio Dasguptak, aberastasun "inklusiboaren" ideia barnebiltzen duena. Irudian, Urdaibai biosfera erreserba, azpiegitura proiektu handiek mehatxaturiko naturgunea.

FOKU / LUIS JAUREGIALTZO



ATZERA BUELTARIK GABE. Ekosistema ugari, izan koralen arrezifeak nola oihan tropikalak edo etxe ondoan ditugun mendiak, atzera bueltarik gabe kaltetu ditugu eta "inflexio puntu" hori gurutzatzeko zorian gara.

Erresuma Batuko Finantza Ministerioak aginduta –ongi leitu duzu, irakurle, oraingoan ez da ingurumen saileko despatxutik irtendako ekimena– otsailan egin da publiko 600 orrialdeko txosten mardula. Indiarra jatorriz eta britainiar naziotasuna hartua, Dasguptak ibilbide luze eta prestigiotsua du egina zientzia sozialen arloan, batez ere garapen bidean diren herrialdeen baliabide naturalen agortzea ikertuz. Txostenean, egungo sistemaren aurrean makila altxa du: "Biosferak mugak dituzenez, ekonomia globalak ere bai", eta bere ustez horrek ondorio nabarmenak ditu "legitimoki enpresa humanoarengandik espero dugun horretan".

ERRESILIENTZIA SOZIOEKOLOGIKOAN INBERTITU

Covid-19ak astindutako garaiotan euskal komunitate zientifikoko kideek ere

iritzia zabaldu dute hainbat hedabideetan otsailean, "ekonomiaren berreraikuntza ekologikoaren alde". Euren esanetan bizi dugun "sindemiak" agerian utzi du sistema ekonomikoaren zaurgarritasuna eta gizakiak "eko-mendekoak" ere bagarela.

Zientzialariok, Dasgupta aipatuz, diote "erresilientzia sozioekologikoan inbertitzea" beharrezkoa dela. Alegia, krisi global honek ekarriko dizkigun *shock* egoeratarako egokitzeko gaitasuna handitu behar dugula, elkar zaintzen gizarte-sare sendo bat eraikiz eta ingurumen osasuntsua sustatuz. Etorkizun erresiliente horretan, ez dute lekurik herritarren beste behar batzuen aurrean hipermugikortasuna eta "azpiegitura ikonikoak" lehenesten dituzten ekonomia zaharraren inertzien pentsatzekoa da AHT eta antzekoek ari direla-.

Ekonomialari indiarren txostenak berehala hartu du sona, askok "Stern txosten berria" deitu diote. Nicholas Sternek, 2006an, aldaketa klimatikoak munduko ekonomiari eragin ziezaioken inpaktuaz idatzi zuen, eta mugarri bat izan zen, lehen aldiz kopurua jarri zuelako berotze globalaren aurrean "ezer ez egitearen" kostuei.

Dasgupta pauso bat harago joan da eta biodibertsitatea jarri du ekonomia-erdigunean. "Behar beharrezkoa genuen ipar-orratza eskaini digu", dio David Attenborough naturalista eta britainiar idazle ezagunak hitzaurrean.

Datu batzuk argigarriak dira bederen. Azkeneko dozenaka milioi urtetako batez bestekoarekin konparatuta, espezieen desagertze tasa 100 eta 1.000 aldiz artean handiagoa da gaur egun. Osoki hartuta, milioi bat espezieko 100 desagertzen ari da munduan eta hu-

rrengo hamarkadetan espezieen %20 desagertuko litzateke: “Kopuru horiek perspektiban jartzen dute gizateriak biosferan duen presentziaren garrantzia bera, eta erakusten digute zergatik dioten zientzialariek nahiz ekologistek bizitza hasi zenetik *seigarren estintzio* biologiko handia dela honakoa”, dio Dasguptak.

BPG ADIERAZLEA GAINDITU BEHARRA

Egun, munduan bizi diren ugaztunetatik %4 baino ez da “basatia”, gainerakoa etxekotutako aziendak eta gizakiok osatzen dugu. 1950ean 2.500 milioi jende bizi zen gure planetan, egun 7.700 milioi pasatxo gara *Homo Sapiens*-ak. Aktibitate ekonomikoa, berriz, hamahiru bider hazi da denbora horretan eta Barne Produktu Gordina (BPG) are gehiago, hamabost bider.

Hazkunde ekonomikoa hori, baina, ekosistemak deuseztatuz lortu dugu, ekonomialariaren esanetan: 1992 eta 2014 artean *per capita* “produzitutako kapitala” (eraikinak, makinak, azpiegiturak...) bikoiztu egin da; “kapital humanoa” (hezkuntza, osasuna, gaitasuna...) %13 hazi da; baina urteko diru-kontuek jasotzen ez duten beste aktibo hori, “naturaren kapitala”, %40 murriztu da urte horietan (ikus infograma).

Science aldizkariak argitaraturiko ikerketa bat dakar gogora Dasguptaren txostenak. Honen arabera, naturaren kapitala edo “biosferaren zerbitzu” horiek 33 bilioi euroko balioa zuten 1990eko hamarkadan, munduko BPGa

halako bi: “Pentsa zitekeen datu horiekin aintzat hartu beharko genukeela biosferaren garrantzia ekonomian, baina ez zen horrela izan”. Izan ere, biosferaren balioa ez da merkatuko prezioetan antzematen, denen eskura dagoelako kostu monetariorik gabe. Ba-

Azkeneko dozenaka milioi urtetako batez bestekoarekin konparatuta, espezieen desagertze tasa 100 eta 1.000 aldiz artean handiagoa da gaur egun

lio horrek ez du zerikusirik epe motzeko emaitzekin, “gizakiaren eta beste milaka espezieen ongizatearekin baizik”.

BPGren sortzaileak berak, Simon Kuznetsek, esan zuen adierazle makroekonomiko horrek ez duela balio gizakiaren ongizatea neurtzeko. 1929ko *crack* edo Depresio Handiaren ondoren sortu zuen BPGa, baina AEBetako kontabilitate nazionala egiteko. 1940ko hamarkadatik aurrera, ordea, munduko herrialdeen ranking ekonomikorako erabiltzen hasi ziren eta beste adieraz-

le batzuen oinarri ere izan da, Nazio Batuek erabilitako Giza Garapenaren Indizearena kasu.

Lan erreproduktiboa, ezkutuko ekonomia, hezkuntzaren kalitatea, berdintasun soziala... Hori guztia ez du jasotzen BPGak, ezta ondare naturala ere. Dasguptak adierazle hori gainditzea aldarrikatzen du bere ikerlanean, “hazkunde eta garapen ekonomikoa jasanezinerantz baikaramatza”, eta horren ordez aberastasun “inklusiboaren” ideia bereganatzea proposatzen du, bioaniztasuna kontuan hartu eta gaur egungoen ez ezik, bihurtzeko ongi-zatea hobekiago jasoko lukeena.


NATURA ESPLOTATZEAGATIK ORDAINTZEN DUGU

Egoeraren diagnosa egiteaz gain, arduradunak ere nolabait fokupean jartzen ditu britainiar gobernuarentzat egindako lanak. Hala, bertan irakur daitekeen “munduko ia toki guztietako gobernuak egoera larriagotzen dute jendeari gehiago ordainduz natura usiatzeko babesteko baino”. Zentzu horretan, erregai fosilak, estraktibismoa, gehiegizko arrantza, nekazaritza intentsiboa, abeltzaintza kutsagarria –behi-tegi handiak kasu–... diruz lagunduak direla gogorazten digu txostenak.

Teknologiaren paperaz ere mintzo zaigu Dasgupta. Gizakion aztarna ekologikoa murrizteko garrantzitsua deritzon arren, bere ustez “ezin dugu eskusiboki horren menpe egon”. Ez dugu miraririk aurkituko auto elektriko, digitalizazio, hidrogeno eta antzekoetan, egungo kontsumo eta produkzio pautak errotik “berregituratu” beharko ditugu. Diru-sarrerak altuak dituzten herrialdeetako jendeon gaur egungo bizitza estiloa mantentzeko, Lurra bezalako 1,6 planeta beharko genituzke guretzat bakarrik.

Eta jakina, gutxien dutenak dira gehien galduko dutenak, euren ondare naturala zurrupatzen dugun bitartean. Hau ez da arazo demografiko edo tekniko hutsa, geopolitikatik asko du. Elikadura burujabetzari lotutako programak jarri behar dira martxan herrialde txiroetan, emakumeek finantza baliabideetara duten sarbidea handitu, jarduera eta kontsumo jasangarriak sustatu... ahuntzak ardiari ilea eskatu beharrean. Dasguptaren txostenak garbi esaten baitu: biodibertsitatearen mesedetan lehenbailehen ekitea gutxiago kostako zaigu, neurriak geroagorako uztea baino. ●

Aberastasun globala “per capita”



LANERAKO ESPAZIOA BAINO GEHIAGO

Elkarlana, ekonomia soziala eta kultura

2019an zabaldu zituen atea Teila Fabrikak, Donostiako Egia auzoan. Lanerako tokiak alokatzen dituzte, baina ez dira horretara mugatzen. Elkarlanaren, ekonomia sozialaren eta kulturaren ardatzen arabera ari dira garatzen proiektua, auzoan errotu eta eragiteko asmoz.

 PERU IPARRAGIRRE  DANI BLANCO

Aldatzen ari da Donostiako Egia auzoa azken urteotan. Aspal-ditik dator aldaketa, baserriak eta sagardotegiak zeuden auzoa gutxika industrializatu eta urbanizatu baitzen. Horretan eragina izan zuen, besteak beste, 1903an zabaldutako *Fábrica de Tejas y Ladrillos Eguia S.A* teila fabrikak. 1962an bota zuten arte auzoko paisaian erreferentzia nagusia izan zen fabrikaren tximinia handia. Urte gutxi iraun zuen fabrikak, 1936an behin betiko itxi baitzuten. Teila fabrika hura eta zekarrena, ordea, garaiko bizimoduaren aldaketen erakusgarria da. Handik gutxira zabaldu zuten tabako fabrika berria, tren geltokiaren ondoan.

Auzoaren paisaia ez ezik bertako jendearen, edo horietako batzuen, bederen, lan egiteko modua ere aldatu da ordutik hona. 2015an Tabakalera inauguratuta eta auzoaren gentrifikazioa sakondu ahal ugaritu egin dira Egian ere *coworking* espazioak. Beraien lana indibidualki egin arren espazioa eta elkarrekin lan egiteko sor daitezkeen proiektuak partekatze gunea. Zentzu horretan, lanerako espazioa partekatze gunea da Teila Fabrika ere, baina baditu berezitasunak.

Izena eta irudia teila fabrika zaharrari zor dizkio, eta komunitatea elikatu eta indartzeko lekua izan dadin nahi dute proiektuaren sortzaileek.

BALIO ERALDATZAILEAK

Balio eraldatzaileen arabera jarduten duten proiektuentzako lekua da Teila Fabrika, eta gizartean eragitea du helburu. Aitziber Lizarribar proiektuaren kudeatzaileak dioenez, inguruan zuten jendearen beharretatik tiraka ondu zuten ideia. Herri mugimenduetan eta horien inguruan lanean ari den jendea, enpresa txikiak, autonomoak, bakarrik lan egiten dutenak eta antzeko egoeretan daudenak leku batean elkartzeak aukera ematen die elkarren lana indar-

tu eta elikatzeko, sareak sortzeko. Izan ere, espazioa baino gehiago eskaini nahi du proiektuak. Etxetik, edo bakarrik lan egin beharrean elkartzeak duen balioari garrantzia ematen diote. Ez bakarrik eremu profesionalean, baizik eta informalean ere, goizetako kafean ere gauza interesgarriak ateratzen dira, esaterako.

Hiru ardatzen arabera garatzen dute proiektua. Elkarlana da horietako bat. Elkarlana sustatzeko mekanismoak dituzte martxan. Esaterako, teilakide baikoitzak proposatzea zer eman diezaio-





Aitziber Lizarribar
(ezkerrean) eta
Maddalen Serras
(eskuinean),
Teila Fabrikako
kudeatzaileak.

keen komunitateari, izan profesionalki zein bestela, eta, era berean, bakoitzak zer jaso nahiko lukeen adieraztea. Bi zerrenda horiek erkatuta sortzen dira elkarlanerako proiektuak eta konexioak, elkarlan ekonomikorako edo ezagutza partekatzeke.

Ekonomia soziala da Teila Fabrikaren beste ardatzetako bat. Proiektua transbertsalki zeharkatzen du, espaziorako dituzten hornitzaileetatik hasi eta aretoetan antolatzen dituzten jardueretarako. Norabide horretan, Olatukoop sareko kide dira.

Hirugarren ardatza da kulturarena. Hilero bi ekimen kultural antolatzen dituzte, teilakideekin zein auzoko beste proiektuekin batera. Hitzaldiak, tailerrak, topaketak, berriki, *Ez da entzuten!* musika zikloaren bigarren jardunaldia egin zuten bertan.

PANDEMIAK BALDINTZATURIK

2019an, zabaldu aurretik, auzoko eragileei proiektuaren berri eman zieten. Ekainean "teilakide" batzuekin lanean

hasi ziren, eta udan zehar obrak amaitzeko eta espazioa ondo prestatzeko tarte hartu zuten. Urte hartako irailean ekin zioten ohiko martxari. Berehala, ordea, haien jarduna erabat baldintzatu zuen COVID-19aren pandemiak. Martxoko itxialdiaren ondorioz teilakideei arreta eta laguntza eskaintzeko moldatu behar izan ziren. 2020ko ekainean heldu zioten berriro ere pixkanaka martxari, espazioa osasun neurrien arabera moldatuz: protokoloak diseinatu, edukierak kalkulatu...

ESPAZIOAREN GARRANTZIA

Espazioa baino gehiago da Teila Fabrika, baina espazioa ere bada. Eta espazioak berak ere badu garrantzia. Hiru bulego, lanerako espazio komunak, bilera gelak eta aretoak dituzte erabilgarri. Bulegoak hartuta daude, baina lanerako espazio komunetan badago oraindik lekua libre. Aski flexibleak dira, eta, Maddalen Serras kudeatzaileak azpimarratu duenez, beste *coworking* batzuetan gutxieneko edo gehieneko epe finkoak egoten ba-

dira ere Teila Fabrikaren malgutasunaren alde egiten dute. Aretoei dagokienez ere, ekitaldi eta jarduera askotarikoetarako moldagarria den areto bat dute. Lehen entitateek batzar handiak egiteko baliatzen zuten, eta orain, aldiz, bizilagunen bilerak egiteko erabiltzen dute gehiago. Funtsean, helburua da espazioa bera eta bertako baliabideak erabiltzaileen beharretara moldatzea, eta ez alderantziz.

AUZOAN ERROTUA

Egian bizi dira Serras eta Lizarribar, eta Teila Fabrika bera ere auzoan errotzea nahi dute. Errotze horren erakusgarria da, esaterako, Gordegia Egiako Artxibategi Grafikoak Teila Fabrika duela teila-tupe. Gordegian ikus daitezke, besteak beste, auzoak urteotan zehar izan duen bilakaera erakusten duten argazkiak.

Horrez gain, auzoko zenbait proiektutan parte hartzaile gisa ere aritzen da Teila Fabrika. Prest daude elkarlanerako eta proiektuaren etorkizuneko ibilbidea ere komunitatean eraiki nahiko lukete. ●

Zenbakiei beldurra galtzen, gertutasunaren bidez

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Aholkuk izenari men eginez, proiektuei asesoramendua ematen die, zenbaki kontutan. Proiektuetan eguneroko lanari eusteak buruhausteak ekartzen ditu, eta "kontabilitate fiskala" moduko hitzek beldurra ere ematen dute... Aholkukoak saiatzen dira proiektuen sorreran bidelaguntza ematen, gertutasunaren bidez lasaitasuna transmititzen, ezagutzen dituzten erreminten bidez errentagarritasun-erako argi-puntuak ematen... Tira, bada guk ere artikulu hau baliatu dugu aholkuren bat eskatzeko.

"Zenbakierna nahiko gai korapilatsua da. Batzuek ez dute ulertzen edo ez zaie gustatzen, askotan urduri etortzen dira eta blokeo puntu bat izaten dute, gai personalak izan daitezke... saiatzen gara bezeroei normal hitz egiten eta gertutasuna ematen. Eta haiek esaten digutena da lasaitu egiten direla". Pandemia garaian psikologo lana ere egin behar izan dute.

Txikitasuna da Aholkuko bezeroen ezaugarria: kooperatiba, elkarte edo autonomo txikiak dira. "Denak dira txikiak, zeren langilez bolumen handia dutenek pertsona bat jartzen dute zenbakiak egunean izateko". Hauetako proiektu batzuk sortzen ikusi dituzte Aholkukoek, eta erdi-minetan laguntzen aritu dira: "Proiektu berri bat martxan jarri behar dutenean, saiatzen gara bidelagun funtzioa betetzen, modu naturalean laguntzen. Pedagogia lana egiten dugu naturaliki: Nola egin faktura bat eta nola egin gauzak... askotan oso galduta egin ohi direlako, normala denez hasieran ez dutelako gaia kontrolatzen eta hor laguntzen ahalegin handia egiten dugu". Ekonomia sozial eraldatzaileko Olatukoop sareko kide diren proiektu asko Aholkuren bezero dira: "Nukleo moduko bat dira guretzat".

Txikien arteko sarea josten laguntzearen ondorioz, eta gertutasunaren emaitza moduan, 2019an Aholkuk hamar urte bete zituela ospatzeko festa

bat egin zuten: bezeroak eta bezero ez diren Olatukoopeko hainbat proiektu gonbidatu zituzten. "Oso giro polita sortu zen. Ez da oso ohikoa aholkularitza etxe batek festa egitea".



AHOLKURI AHOLKU ESKE

"Adi egoteko garaia da, eta ideia berriak pentsatzekoa: agian ezingo dira orain arte beti egin izan diren gauzak egin, eta beste batzuek egiten hasi beharko da... sortzaile izan, merkatua aldatzen ari baita. Eta tentuz ibili, ahalik gutxien zorpetu eta kontuz maileguekin, hasieran dirua merke eman baitzuten: 'Sei hilabete barru arte ez dugu ordaindu behar!' esaten ziguten, eta guk erantzun: 'Bai, baina sei hilabete barru ez dakizu zu nola egongo zaren, beraz, beharrezko ez baduzu, ez hartu'. Kontuz ibiltzeko garaia da, ematen dituzten laguntzak hartzen saiatu baina

ongi begiratuta zertara lotzen zaituzten".

Beste aholku hau ere ematen ari da Aholku: "Egoitzak alokairuan dituztenei esaten diegu jabeekin hitz egin dezatela, ordaintzea asko kostatzen ari baitaie eta gauzak negoziatu baitaitezke. Jabearen arabera da, baina gure bezero diren enpresa askoren errentaren kasuan, lokal askodun jabeek ari gara. Eta gure bezeroei esaten diegu, ezin direla egunean hamar orduz lanean ari, jabeari ordaintzeko".

Aholkukoak pozik dira oraingoz ez dutelako bezerorik galdu itxi izanagatik, baina "hemendik aurrerakoak ematen digu beldurra", esan dute. Izan ere, haien bezero askoren ogibidea zerbitzuak ematea da: "Administrazioarekin egiten dute lan, diru-laguntzekin... eta kezka handia ematen digu sektore horrek, ostalaritzaz gain. Ea proiektu berrietarako hitzarmenak lortzen dituzten, ea nola jokatzen duen administrazioak: diru gutxiago egongo da, eta ea nondik kenduko duten. Ikusiko dugu". ●



**AHOLKU KOOPERATIBA
ELKARTE TXIKIA**
aholku.eus

Zer egiten du: Aholkularitza laborala, kontablea eta fiskala.

Langile edo bazkideak: 3.

Egoitza: Donostian.

Harremanetarako:
maider@aholku.eus.

ASTEKARIA BIZIKLETAZ ERAMATEN DIZUTENAK ETXERA

Bi gurgil nahikoa dira banaketa hobetzeko

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Zorteko zarete Irun, Hendaia, Hondarribia eta Arrasateko ARGIAren harpidedunak. Akaso zuetakoren batek topatu du etxeko buzoian astekariko azken alea sartzen banatzaile berria. Correos edo La Poste-ko uniformerik gabe, bizikleta gainean. Banaketa sistema berria martxan da herri hauetan, Gasteizen Eraman kooperatibak duela urtebete abiatu zuen bide beretik. Bigarren kolpe honekin jada ARGIA jendearen %7k jasotzen du astekaria bizikletaz banatuta, eta kooperatiba berriak sortu ahala kopuru hori igotzea da helburua.

BURUJABE EZ IZATEAREN DESABANTAILAK

Gaur egun gehienbat (duela urtebetera arte osoki) posta zerbitzuz banatzen da ARGIA: Hego Euskal Herrian Correos-ekin eta Ipar Euskal Herrian La Poste-rekin, baina Euskal Herria modu zentzugabe honetan zatikatzen duen sistemaren ondorioz, ez dira gutxi harpidedunek jasaten dituzten arazoak eta atzerapenak. Prozesuaren parte hori ARGIAren eskuetan ez izatearen desabantailak dira, burujabetza falta, nolabait esateko. Eredu honi alternatiba bilatu nahi zaio, he-

rriz herri, banaketaren logistikak izan ditzakeen konplikazioez kontziente.

Paul Iano komunikabide honetako kolaboratzailea da, idatzi izan du barrutik ezagutzen duen banaketa sektorearen prekarietateari buruz ere, eta bera da Gasteizko Eraman kooperatibaren sortzaileetako bat. Sektoreari zor zaion errespetua itzuli, lan duinak sortu eta lurraldearekiko eta ingurumenarekiko jasangarria den eredu bat eskaintzea dute asmo. Hari mutur horri tiraka sortzen ari dira zonaldeka banaketa kooperatiba berriak, balore horietan oinarrituta.

TXIRRINDAZ BANAKETA EGITEN DUTEN KOOPERATIBEN BIDELAGUN

Pentsatu globalean eta ekin lokalean. Txikitik eragin, alegia. Proiektu independenteetan sinesten du ARGIAK. Banketxe, enpresa multinazional edo alderdien eskuetatik kanpo. Baina hau egunero gauzatzeko lagunen babes, konpromisoa eta laguntza ezinbestekoa da. Sarea. Guk ARGIA jendea dugun bezala, banaketa kooperatiba hauek ARGIA izango dute bidelagunetako bat. Euskal Herriko txokorik urruneneraino ere garaiz, euskaraz, duin heltzeko. ●



Ezkerretik eskuinera, Christian, Paul, Nestor, Alex eta Ihering. Behean, Fredy.

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Lehenago ere izan nintzen kide, gero, beste proiektu batzutara pasatu nintzen, baina gaur egun, ez dut besterik ikusten"

Beasaingo Arantxa

"Aspaldidanik jarraitzen zaituztet, lehenengo paperean ikastola eta ikastetxetako harpidetzatik.

Orain App-ean, oso gustura. Sekulako lana egiten duzue eta babestu nahi dut. Eta egunen batean nire idatziren bat ARGIA irakurri nahiko nuke, beraz, bizitza luzea ARGIAri!"

Bakioko Alba

AGENDA

Olatukoop sareak, Kooperatibak Denontzat proiektuaren baitan formazio zikloa antolatu du. Izena emateko, helbide honetara idatzi behar da:

koopdenontzat@olatukoop.eus

Hiru hitzaldiak Erreterria-Oreterako Merkatuzar-en izango dira, 10:00etatik 13:30etara:

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA ETA KOOPERATIBISMOA

Maiatzak 14.

LURRAREN TRENPU ONAK ZURINA ERE BADA KAR



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Egun luzeetako argitasun eder honek uraza edo letxuga (*Lactuca sativa*) jateko gogo bizitzen du. Aurten egun horiek eguraldi lehor eta beroen atzetik etorri dira, eta lurra giro dago, trenpu ona du, azaro ona da. Azaro da bai udazkenean ganbara-zabal, aletegi, selauru eta mandio beteko dizkiguten arto (*Zea mays*), babarrun (*Phaseolus vulgaris*) eta kuiak (*Cucurbita pepo*) ereiteko. Garaia, hazi aro da eta lurrak ere azaro ona du. Ereingiro dago eta alor eta soroetan igerrri zaio; ongarriketak, ipularren garbiketak, lur prestaketak eta abar egiten jendea aurrera eta atzera dabil traktore gainean.

Baratzean ere jendea ez dabil atzera. Giroak bizituta jateko gogo dugun uraza horiek landatzen, adibidez. Lur axala pittin bat harrotzea nahikoa da uraza landaretoa landatzeko. Aurrez ondo luartutako edo ondutako simaurra nahasi axal horretan eta landatutakoan asun-urarekin (*Urtica dioica*) ureztatu. Uraza sailak jartzea ondo dago baina baratzean makina bat txoko eta bazterretan ere landatu daitezke barazki txiki horiek. Leka (*Phaseolus vulgaris*), zainzuri (*Asparagus officinalis*), tomate (*Solanum lycopersicum*), piper (*Capsicum annuum*), alberjina (*Solanum melongena*) eta antzekoen sailetan, landarea txikia den artean, tartean ere landatu daiteke uraza: beste horiek luzatu eta handitu bitartean ederki etorri dira eta guk lepoa moztu eta jan.

Urazak badu aurkari iaio bat: zurina. Oidioa edo zurina landare askotan ondo askok sortzen duten gaitza da. Urazarena *Golovinomyces cichoracearum* ondoaren lana da. Horrek berak sortzen du patataren (*Solanum tuberosum*) eta kuien (*Cucurbita spp.*) zurina. Hezetasun handiko eta gori epeleko garaietan harrotzen da gaitza. Negutegian edo berotegian du pagotxa. Udaberria ikaraga-



rri gustatzen zaio, urazari bezala. Ez du maite bero lehorra. Ondoa hostoaren gainean hedatzen da, eta ez dio hari bere lana egiten uzten, denborarekin usteldurak eta orbainak sortuz.

Gaitzari aurre egiteko landare arteko tartea handitu, 30 zentimetro adibidez. Negutegia bada, ondo aireberritu. Kontuz ureztaketarekin, gehiegizko urak beti gaitza ekarriko du, beti. Ongarriketa egiterakoan oso ondo luartutako ongarrria eta tamainan erabili; bestela nitrogeno soberakinak urazaren hazkunde azkarra ekarriko du, eta ahulegia; gaitzarentzako bazka ederra. Eraserik baldin badago jotako landareak ahalik eta azkarren kendu, gupidarik gabe! Gogoan izan astauraza (basaletxuga, letxuga basa, ortuari garratz, belar karats... *Lactuca serriola*, uraza guztien amon arbasoa) baratzearen inguruan baldin baduzu berak mantenduko duela gaitza. Beraz, zure urazak sano nahi badituzu bere arbasoa hiltzea duzu onena. Gure etxean behintzat ugaria da batean eta bestean, edozein txokotan sortzen da. Jan ere jan egin daiteke: urazaren mikaztasuna badu, baina min xamarra. Urazak hazi artean ere entsalada grina asetzeko... ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Bidali zure galdera:
bizibaratzea@bizibaratzea.eus

↳ Ana Agirre

Limoiondo bat daukagu atarian, baina batere gustorik eta bizitasunik gabeko limoiak ematen ditu. Negu batean landarea galdu egin zen, nire ustez landarearen zati txertatu gabekak egin zuen aurrera, hortik gure limoi kaxkarrak. Gauza da berriro ere limoia txeratu nahian nabilela. Horretarako limoiondo

inautsiko nuke eta aurten botatzen dituen adar berriak, limoi onak ematen dituen beste limoiondo baten kimuen bidez txertatuko nituzke: abuztu bukaeran egiten den begiko txertaketaren bidez, sagarrondo bat bariatatez aldatu behar banu bezala.

Nire arazoa zera da: ez dakidala

limoiondoen zikloen berri, beti fruitua ematen ari baita, eta ez dakidala noiz inautsi dezakedan udarako txertaketak egiteko preparatuta lagatzeko.

Orain inaustea ez legoke gaizki. Udan eman dituen kimu horiek txertatu. Txikiak badira hurrengo udan egind ezakezu. ●

BASERRILOREAK

LORE SORTAK ERE, BERTAKOAK
ETA KIMIKORIK GABEAK HOBE

B aratzegintzan eta abeltzaintzan diharduten baserri eta proiektuez asko idatzi da sail honetan azken urteotan, baina loreak ekoiztetik eta saltzetik bizitzeko apustua egin dutenen adibide gehiegi ez da atera. Bada, horretantxe ari dira duela bi urtetik Koldo Hormaza eta Joey Albert, Baserriloreak proiektuko kideak: Azkoitiko Izarraitz mendian, aire zabalean, modu erabat natural eta ekologikoan loreak ekoizten dihardu bikoteak, eta inguruko merkatuetan saltzen dituzte ondoren. Urte asko Madrilen egin ostean, kazetaritzatik lorezaintzara salto egin eta 2016an iritsi ziren Arumarrate baserrira. Geroztik, lorez eta kolorez bete dute ingurua.

Slow Flowers mugimenduaren eta nekazaritza birsortzailearen baitan kokatzen dute Baserriloreak proiektua bi kideek. "Lore basati asko dugu gure lurretan, eta horiek landatutakoekin nahasten ditugu sortak osatzerakoan. Gainera, ekoizpenean ez dugu inolako kimikorik erabiltzen, eta landareak modu naturalean haziak dira", azaldu du Albertek. Ez dute negutegirik erabiltzen eta bertara ongi egokitzen diren loreak soilik landatzen dituzte. Ia 600 metroko altueran



egonda, espezie aproposak aukeratzeko proba ugari egin behar izaten dituzte.

Ohiko lore-dendetako sortak non eta nola ekoiztiak izan diren pentsatzera gonbidatzen gaitu Hormazak: "Normalean erosten ditugun lore sortak Herbehereetatik datoz, baina hara Ekuadortik, Keniatik edo urruneko beste herrialdeetatik doaz". Zer esan nahi du horrek? Erosten ditugun loreak guganaino iristeko makina bat kilometro egin dutela gehienetan, eta bidaia luzea zimeldu gabe egiteko kimiko ugari izaten dituztela. Baserriloreak proiektukoak, aldiz, arratsaldean ebaki eta biharamun goizean saltzen dituzte hurbileko merkatuetan, batik bat Azpeitikoan eta Azkoitikoan. Paradoxa da, Slow



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Flowers loreak besteak baino azkarrago iristea etxeetara.

LOREEN KULTURA
GUREAN ZABALTZEN

AEBetan eta Erresuma Batuan loreen kultura askoz hedatuago dagoela dio bikoteak, eta kultura hori gurera ekartzea eta hedatzea dute asmo. "Han jendeak astero jartzen ditu loreak etxean, ez da hemen bezala urtebetetzeetan eta antzekoetan soilik egiten den opari bat", dio Hormazak. Hain zuzen, Erresuma Batuko lore-baserri batera joan zen Albert lan nola egiten zuten ikastera.

Ekoizpenaz gain, bestelako ekimenak ere antolatu izan dituzte; esaterako, koarderno botanikoa osatzeko saioa, uztailan errepikatuko dutena. "Koadernoan sasoi desberdinetako loreen zerrenda dago, eta partaide bakoitzak landare horiek bilatu behar ditu". Bildutakoak koardernoan jarri eta ondoan fitxa bat osatzen dute zein lore den, zertarako balio duen eta bere ezaugarriak zeintzuk diren adieraziz. Proiektuko kideak etengabe ari dira ikastaroak eta formakuntzak jasotzen. "Lurra lantzeko mugimendu horretan gaude eta ikasten goaz. Asmoa ez da enpresa handi bihurtzea: baserritik bizi nahi dugu, ahal dela loreetatik, eta uste dugu lortuko dugula", diote. ●

Zure osasuna zaintzeko garaia da. Bertokoa eta ekologikoa kontsumitzeko garaia da.

eko lurra

Euskadiko Elikagai Ekologikoak
Alimentos Ecológicos de Euskadi

BALEA BATEN SABELEAN

Selma Huxley (1927-2020) historialari eta ikerlari kanadiarra zen. Lagun bati lehenbizikoz entzun zionetik Euskal Herriak Ternuarekin mendeetan ozeanoz haraindiko harremana izan zuela, bere ikerketak bestelako norantza hartu zuen: XVI. eta XVII. mendeko euskal baleontziak jarri zituen miran. Ottawa utzi eta bere lau seme-alabekin Oñatira lekualdatu zen, eta Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan egon zen bi hamarkadaz ikertzen. Artxiboan pasatako ordu luzeak eta emakume haren nekazintasunak ahalbidetu zuten, besteak beste, Pasaiako San Juan baleontziaren aurkikuntza Red Bayn 1977. urtean, egun Albaola Itsas Kultur Faktorian eraikitzen ari diren baleontziaren aurretikoa. Katinka Bock artistak gertakari horren berri izan zuenean, bazekien Artiumeko erakusketarako istorio zoragarri horrekin loturiko zerbait egin nahi zuela. Horrela jaio da *Logbook* (Nabigazio-egunkaria) erakusketa.

 JONE ALAITZ URIARTE  RDEHIERRO

Katinka Bock (Frankfurt am Main, 1976) eskultorea da eta lan egiten duen inguru geografikori eta testuinguruari gertutik begira sortzen ditu bere lanak. Lanean ari den lekuaren arkitektura, hirigintza, gizartea, klima edota ingurumena oso kontutan hartzen ditu, eta horrenbestez, tokian-tokiko proiektuak garatzen ditu. Sortzen dituen eskulturak –egurrezkoak, kobrezkoak, zeramikazkoak, buztinezkoak, altzairuzkoak– era berezian aurkezten ditu espazioan, *display* zaindu eta sotilen bitartez. Kanpoaldea eta ba-

rrualdea, naturala eta artifiziala, efimeroa eta betierekoa izan litezkeen muturreko horiek nahasten, gainjartzen eta tenkatzen ditu modu trebean. Eskulturaren eta espazioaren artean topaguneak sortzen ditu, hauek lotzen eta erakartzen dituen hari finak ehunduz.

Gasteizen duen erakusketa prestatzeko, Bockek hainbat bidai egin zituen Euskal Herrira eta Artium museora. Erakusketa aretoa behin eta berriz ikusi, espazioak izan zitzakeen aukera askotarikoak aztertu eta museoaren inguruak ezagutu nahi zituen bere lanek inguruarekin nolabaiteko inbrikatzea

izan zezaten. Bidai horietako batean, Gasteiz utzi eta artista gazte talde batekin batera Pasai San Pedroko Albaolako faktoria ezagutu zuen. San Juan baleontzia nola eraikitzen ari ziren ikusteak harritu egin zuen; garaiko materialak eta tresnak erabiliz modu artisauan eraikitzen ari dira ontzia. Barkua egiteko erabiltzen dituzten egur oholetan jarri zuen atentzioa, haritz-egur zati luzez barkuaren gila, masta eta saihsak egiteko erabiltzen dituzten oholak.

Hori ikusi eta gero, eta Selma Huxleyren berri izan ondoren, erakusketa aretoa eta Albaolan ezagututakoa erlazioan nahi izan zituen. Baleontziak eraikitzeko erabiltzen ziren egur-ohol luzeetako batek erakusketa aretoa alderik alde zeharkatu zezakeela pentsatu zuen. Bestalde, Gasteizera kostaldeko izpi batzuk eramateko aitzakia gisa funtzionatzen zuen. Horrela, Albaolako arotzen laguntzarekin, zortzi metro luze zuen egur-ohol kurbatua landu eta erakusketarako prestatu zuen. Egur piezak aretoan sortzen duen efektua ikaragarria da, egur zatiaren kurbadura sinpleak aretoaren forma zurruna nolabait puskatzen duelako eta kanpoko elementu horrek (ozeanoa, baleontzia, baleen ehiza) barruan duen irakurketa oso bestelakoa delako. *Segment with Unknown Radius* (*Segmentua erradio ezezagunarekin*) titulua jarri dio lurrazpian dagoen erakusketa aretoari barku baten bodegaren eta bale baten forma ematen dion obrari.

Hala eta guztiz ere, hura ez da Artiumeko aretoko arkitekturan egin duen esku-hartze bakarra: *Confusions Possibles* (*Nahaste posibleak*) obrarekin, irekidurak egin ditu aretoko horma faltsetan, pladur zatiak kendu eta barne

egitura azaleratuz. Balea forma duen barkuak bezalaxe, hemen ere agerian geratu dira hormen barneko egurrezko-saihetsak. Halaber, lehen itxiturak zituzten leiho borobilak ireki egin dira erakusketa honekin kointzidituz, eta kanpotik argia dakarkiguten leiho borobilek, are eta gehiago areagotzen dute barku baten barruan gaudela pentsarazten duen gogo-aldartea. Gutxina, oso keinu sinpleekin, artistak erakusketa aretoa bere egin du.

Aretoan, bata bestetik banatu samar, Bockek azken bost urteetan egin dituen lanak ikusi ditzakegu, esaterako *One to Eight of Eight (Batetik zortzira, zortzitik zortzi)* instalazio eskultorikoa. Zortzi piezez osaturiko lan multzoa da, eta zortzi astoren gainean, brontzez egindako orrazi erdia, zapata bat, koi-lara bat edo arrain bat aurkitu dugu, dotore aurkeztuta, desfile bateko piezak bailiran. Itsas hondoa edo bale baten sabelean aurkitu genitzakeen objektuak izan zitezkeen, garai bateko tresnen bilduma. Interesgarria da material ezberdinekin nola lan egiten duen ikustea, batez ere gure ibilbidearen erdian ezohiko materialekin –zera-mika eta egurra– bat egiten duten xurgatzailea edo erradiadorea aurkitzen ditugunean.

2019. urtean Bockek bakarkako erakusketa bat egin zuen São Pauloko Pivô arte zentroan. Aitortu beharra daukat toki gutxi ezagutu ditudala hau bezain bereziak iruditu zaizkidanak. Oscar Niemeyer arkitektoak 60ko hamarkadan eraiki zuen Copan eraikin izugarriaren (6 bloke, 37 solairu, 1.160 apartamentu, 72 denda, eta eliza bat ditu bere baitan) baxuan kokatzen da arte-ikerketarako eta -erakusketarako espazioa. *Avalanche (Elur-jausi)* erakusketarako, Bockek eraikina bera eta inguruak miatu eta aztertu zituen lehengo, bere lan-metodologian ohikoa den bezala. Ikuskatze horietatik sortu zitzaion ideia: hilabetez 20 metro koadroko oihal urdin bat zintzilikatu zuen Copan eraikinetik. Klimak eta meteorologiak bere lana egin zuten eta handik denbora batera oihala batu, zati txikitan moztu eta erakusketara batu zituen. Proiektu horretarako sortu zi-

tuen landarez eta zementuz osatutako eskulturak ura jaso zezaten, ureztatze-sistema propioa eraiki zuen: eraikinaren kanpoaldean euria jasoko zuen ontzi bat sortu eta kanaleta-, hodi- eta ontzi-sistema baten bitartez, landareetaraino heltzen zen ureztatzea proposatu zuen.

Bazterretan, izkinetan, zirrikituetan,

hutsuneetan eta toki susmagaitzengandik ondo erreparatu beharreko proposamenak planteatzen ditu Katinka Bockek. Artiumeko erakusketan gora begiratzen duen bisitariak aurkituko du dena zaintzen duen Selma Huxleyren zeramikazko bustoa. Izan ere, nabigazio-egunkari hau, berarekin hasi eta bukatzen den bidai bat da. ●



Hasieratik.

Zinema feministaren historiak

MUNDU IKUSKERAK PROPOSATZE ALDERA

Izenburu horren pean hasi zen 2018an Tabakalerako zinema ziklo feminista. Gaur egun, Artiumekin elkarlanean antolatzen da, eta hilean behin eskaintzen diren filmek eta hauei buruzko hitzaurreek osatzen dute. Kanonetik kanpo gelditu diren emakume zuzendarien pelikulak ezagutzera ematea, eta historia berri posibleen proposamena egitea du helburu ekimenak.


 AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO

Azken boladan bueltaka darabilgizun galdera lotzen zaio, ezinbestean, programa honi. Finean, zer dute amankomunean ziklo honetako filmek? Eta zer zuzendariak? Seguraski, emakume izateari gizarateak ezarritako baldintzapean lan egin izana. Akaso, esperientzia antzekoak, zinema egiteko mugei dagozkienak. Ondorioz, gehiengoa zinemaren historia bakarretik kanpo gelditu izana. Horra begira dago izenburuko azken hitzaren plural marka: eskoletan ikasten den historia bakarria zeharkatzen duten beste ikuspegiei begira dagoena. Eta horretarako ezin aproposagoa genuke zinema, mundu ikuskerak emateko gaitasuna baitu.

Gai aldetik ildo bakarria dagoenik ez nuke esango. Esanguratsua da, zinemaren historian, gizonezko batek zuzendutako lehenengo fikziozko filma ilargiaren konkistari buruzkoa izan izana (Melièsen *Voyage dans la Lune*); emakumezko lehen fikzio-zuzendariak, Alice Guyk, aldiz, *La Fée aux Choux* zuzendu zuen. Azken honek ipuin frantses baten egokitzapena egiten du, azen artean maitagarri bat jarrita eszenan. Bien artean dagoen aldeak, bata umeentzako kontakizun batetik abiatua izateak eta bestea gizateriarentzako hain pauso handia izango zenaren istorioa izateak, gauza asko uzten ditu agerian, baina ez ditu gizonezkoen eta emakumezkoen gaiak betiko lotzen ez bereizten. Uni-

bertsoaren konkista irudikatzen duten filmak egin nahi dituzuen emakumeak, mesedez, aurrera; egin itzazue. Norbere errealitatetik egindako filmek agerian uzten dute errealitate hori bera; aitzitik, horrek ez du esan nahi emakumetasunari lotutako filmak direnik, esentziaz horrelakorik balego bezala.

Berta Sichelek egindako galderara garamatza aurreko gogoetak: zentzurik ba al du generodun irudiez hitz egiteak? Eta ez du erantzun errazik. Sara Millsek proposatzen zuen estereotipo femeninoak alde batera uztea, horrek lekarkeen emakumeen lanen homogeneousazioa ekidite aldera. Azken horrek “emakume” kategoria bera erabiltzea zalantzan



jartzen zuen, naturala denaren normalizazioan kalte egingo zuelakoan. Erabaki politiko horrekin emakumezkoen lanen aniztasuna aldarrikatu nahi zuen, gai edo estilo jakin batera mugatuak ez zitezela izan. Bestalde, Griselda Pollockek gizonezkoen eta emakumezkoen obra ezberdina zela zioen, arrazak, klaseak eta sexu-joerak eragina baitzuen norberaren lanetan. Bi jarrera horiek ez dute zertan kontrajarriak egon; estrategikoa izan liteke “emakumezko zinema” terminoa alde batera uztea zapalkuntzak ez betiketza aldera, nahiz eta ulertu norberaren lan- eta bizi-baldintzen eragina.

Ezin uka liteke zinemagileek zinema egiten dutela artearen historia he-

gemonikoan oinarritutako testuinguruan. Bertan, rola egonkortu dira gizonezkoen mesedetan: oro har, gizonezkoen lanak finantzatzen, erakusten eta saritzen dira. Emakumeak, ordea, gorputz-objektu gisa hartu dira, Errenazimenduko Urbinoko Venusaren eguneraketa etengabe. Gizonezko artista handien musak izatetik artistak bilakatzeko prozesuan, beraz, ezin da deskuiduan pasa gainean daramaten zama. “Emakumeen artea” edo “zinema” kategorizazio arriskutsuetatik haratago, gizarte patriarkal bat dago horren atzean, beraien ekoizpenak sailkatzen eta interpretatzen dituen. Tabakaleran eta Artiumen egindako zinema ziklo honek,

aldiz, baieztatu egiten du emakumeek zuzendutako filmen aniztasuna eta konplexutasuna, tematika edo tratamendu bakarrera mugatu ezin dena.

1975. urtean Screen aldizkarian Laura Mulveyk *Visual Pleasure and Narrative Cinema (Plazer bisuala eta zinema narratiboa)* artikulua iraultzailea argitaratu zuen zinemaren teoria feminista betirako aldatuz. Lehenengo aldiz, psikoanaliaren bidez aztertu zituen Hollywoodeko pelikulak eta ondorio bat atera zuen: filmak gizonezkoentzat eginak dira. Bi urte beranduago, Wollekin batera, bere teoria zinematografikoa praktikara eraman zuen *Riddles of the Sphinx (Esfingearen enigmak)* saia-



Riddles of the Sphinx filmeko fotograma.



La fée aux choux filmeko fotograma.

kera-pelikula eginez. Mulveyk berak irekitzen du filma, ikusleari zuzenean hitz egiten eta pelikularen elementu guztiak azaltzen. Agian proposamen horren erantzun gisara, zinema feministaren zikloko proiektzioak eremu honekin zerikusia duten zinema zaleek aurkeztu dituzte, ikusle goaren eta filmaren arteko bitartekaritzari garrantzia emanez.

Lehen aipatutako emakume zinegile aitzindari izan zen Alice Guyrekin hasi zuten zikloa, orain hiruzpalau urte, *Madame a des envies* (*Madamek desirak ditu*) obra proiektatuta. Argumentuak klasikoa zirudien hasieran: emakume haurdun bat gizonarekin paseoan; aitzitik, bere desirak asebetze asmoz, janaria, alkohola eta tabakoa lapurtzeari ekiten dio ondoren, ama onaren irudia milaka zatitan hautsiz. Lau minutuko film laburra ikusgai dago *youtube*n; ez dio zutik dirauen kanona hausteari utzi.

Maya Deren eta Vera Chytilováren lanak ere eskaini ziren zikloaren hasieran. Lehenengoaren *At land* (*Lurrean*) hondartza batean filmatutako lan esperimentala da; bertan, harreman eta gertaera ez-ohikoak bizi ditu zuzendariak berak kamera aurrean. Chytilováren *Daisiesek* (*Bitxiloreak*) era surrealistan gordetzen ditu bi emakumeren istorioak, zeinak gizonezkoek adarra jotzea duten helburu. Biek ala biek erakusten dute, finean, ohikoa den emakumetasun adei-

tsuaren beste aldea. Errealitatetik haratago eraikitzea ere helburu hartuta, Lizzie Bordenen *Born in flames* (*Sugarretan jaioa*) edo Cheryl Dunyeren *The watermelon woman* (*Angurri emakumea*) filmek emakume *bollera* eta afroamerikarren ikuspegitik azaltzen dituzte zientzia-fikziozko egoerak zein detektibe lanak. Azken horiek ere zikloaren baitan emanak izan dira.

Tabakalera egin zen *Eskuak* izeneko proiektzioan bost film labur jarri ziren harremanean, elkarrekiko perspektiba desberdinak eta helburu kontrajarriak zituztenak. Stella Simon eta Miklos Bandyren *Hands: the Life and Loves of the Gentler Sex* (*Eskuak: bizitza eta sexu adeitsuagoaren maitasunak*), Franciszka eta Stefan Themersonen *Oko I Ucho*, Ivonne Rainerren *Hand Movie* (*Eskuko filma*), Linda Christanellen *Mouvement in the inside of my left hand* (*Mugimendua nire ezker eskuaren barruan*) eta Valie Exporten *Syntagma*. Bost film laburrak elkarrekin proiektatzeak ikuskera ezberdinen arteko elkarrizketa sortzen zuen; batetik, arrazoia (eskua) era askotara ulertua zelako; bestetik, erabaki bakoitzak (azkazal gorriak, esku bakarra, askoren koreografiak...) testigantza eta istorio berriak sortzen zituelako.

Euskal Herrira begira jarrita, Mirentxu Loyarteren *Euskal emakumeak* lana ere izan da hautatua ziklo honetan. Egokia da oso obra honen aukeraketa, zeinak

deia egiten digun bertakoari begira jar gaitezen. Film hau da Ikuska bildumaren baitan emakumezko batek zuzendutako bakarra; Antxon Ezeizaren koordinaziopean, 21 dokumental labur ekoiztu ziren garaiko Euskal Herria islatzea helburu, 70 eta 80. hamarkadetan. Emakumeak ere bazeudela jabetuta, Loyarteri proposatu zioten proiektuan parte hartzea, eta euskal emakumeen inguruko lana zuzendu zuen. Aldiz, ez dago emakumezkoen ikuskerarik seriea osatzen duten beste filmetan, kantagintzari, egoera politikoari edo hizkuntzari buruz ari direnetan.

Emandako adibideak ziklo osoan zehar emandako lanen lagin bat besterik ez dira. Landutako hamaika gaiak eta hartutako erabaki estetiko ezberdinek argi uzten dute emakumeen lanen homogeneizazio ezinezkoa. Zikloa horren baitan pentsatua izan denez gero, lan guztiek daukate harremana feminismoarekin, edo feminismoari bere ekarpena egiten diote bederen. Horretaz gain, halere, munduaren beste irudi bat emateko beharrezkoa den zinema eraikitze saiakerak ere badira. Zinemak emakumearen eta unibertsoaren irudi bakar faltua eraiki du, begirada maskulinoetik. Hori borrokatzeke dira ezinbesteko film hauek, baita ziklo hau ere. Pixkanaka, proiektzio espezifiko hauetatik atera eta esfera guztietara pasa daitezken, halako zikloak bidea izan daitezke. ●



Suedia da benetako Suitza?



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Hastings (Ingalaterra) 1949ko irailaren 1a. Ritz Cinema aretoan *The Third Man* (Hirugarren gizona) estreinatu zen, Carol Reed-ek zuzendua eta Graham Green idazlearen gidoia oinarri. Filmeko eszena ezagunenetakoa, Orson Wellesek jokaturako Harry Lime pertsonaiak hauxe dio: “Badakizu beste hark esan zuena: Italian, Borgiatarren nagusitasunak iraun zuen 30 urteetan gerrak, sarraskiak, hilketak... izan ziren, baina baita Michelangelo, Leonardo eta Errenazimentua ere. Suitzan, ordea, maitasuna, demokrazia eta bakea izan dute 500 urtez. Eta zein da emaitza? Kuku-erlojua!”.

Hitzok ez daude Greenen gidoian; Orson Wellesek inprobisatu behar izan zituen, eszenaren denboretara doitzeko betelan gisa. Wellesek berak esan zuen hungariar antzezlan zahar batek hartu zituela, baina James Abbott McNeill Whistler margolaria edota Geoffrey Household idazlea jotzen dira iturri posibletzat.

Esaldi horretan bi akats historiko daude: batetik, kuku-erlojua ez zuten suitzarrek asmatu, alemaniarrek baizik; bestetik, filma estreinatu zenean, mendea pasatxo besterik ez zen Suitzak nazioarteko gatazketan ofizialki parte hartzeari utzi zionetik. Baina, okerrak oker, edozein motatako gatazketan, Suitza neutraltasunaren sinonimotzat dugu.



Suitza neutraltasunaren eredutzat daukagu, besteak beste, *the third man* filmeko eszena honek agerian uzten duen moduan.

2021etik atzera abiatuta, zehazki 206 urte dira Suitza beste herrialde baten aurka gerran ez dagoela. Napoleondar Gerretan parte hartu zuen Alpeetako estatuak eta, beraz, 1815eko Vienako Batzarrean utzi zion ofizialki nazioarteko gatazketan parte hartzeari. Suediak, ordea, urte bat gehiago darama “bakean”; Vienako Batzarra abiatu baino bizpahiru hilabete lehenago, 1814ko abuztuaren 14an bake ituna sinatuta amaitu zen

Suedia eta Norvegiaren arteko gerra. Beraz, hilabete batzurengatik, benetako Suitza Suedia dela esan daiteke.

Edo benetako Suitzarik ez dagoela. 200 urtetan bi estatuek beste estatu bati ofizialki gerra deklaratu ez arren, Suitzak, besteak beste, hiru asteko gerra zibila izan zuen 1847ko azaroan, eta Suediako armadako hainbat soldaduk alemaniarrekin batera egin zuten borroka Bigarren Mundu Gerran. ●



Asiako gazteluen txanda

Duela urtebete, Budget Direct australiar aseguru etxearen enkarguz, diseinatzaile eta arkitekto talde batek Europako zazpi gaztelu digitalki berregin zituen eta zaharberritze prozesu birtuala GIFen bidez zabaldu zuen.

Orain, gauza bera egin dute Asiako sei gaztelurekin: Iraneko Alamut gazte-

lua (irudian), Beijingeko Udako Jauregi Zaharra, Japoniako Hagi eta Takeda gazteluak, Afganistango Ghazni zitadela, eta Indiako Raigad gotorlekua. Egun hondatuta dauden eraikinak berreginda ikusteko eta horiei buruzko informazioa eskuratzeko aukera dago aseguru etxearen blogean. ●



LIBURUA

Hezur hilek hitz egingo balute



HARALD KRICHEL

ERABILI GOLDEA HILEN HEZURREN GAINETIK

OLGA TOKARCZUK
ITZULTZAILEAK:
AMAIA APALAUZA OLLO ETA
SONIA KOLACKZEK

ELKAR

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Izenburua ondo esatea ezinezko egin zait liburua esku artean izan dudaketik. Luzea izateaz gain, inpaktuzko ideia dakarrelako edo, batek daki. Egilearen izena ere ez dut behin ere ondo idazten asmatu. Letrak jan edo lekuz aldatu ditut etengabe, 2018an Literatura Nobel saria irabazi zuen arren.

Hasi aurretik aitortuko dut ikaragarri gustatu zaidala: liburuan sartzea bat-batekoa izan ez den arren, modu sotilean eraman nau basoraino. Egiten dituen deskribapenak ez dira luzeak, baina bai oso bisualak eta esanguratsuak. Detaile txikietan bilatzen du esangura eta sententziazioz betetako momentuak deskribatzea lortzen du.

Protagonistaren eskutik garamatza autoreak. Pertsonaia argia, aktiboa, desiraduna eta indartsua da. Ofizioz ingeniaria eta irakaslea eta afizioz astrologoa. Horoskopoaren bitartez per-

tsonaiaren pentsamendu sakonena kontaktzen zaizkigu. Jendea, mundua eta bizitza ulertzeko nahi handia duen norbaiten psikea ikus dezakegu horrela. Izaki bizidun oro maite duen pertsonaia sentziblea da. Gure jendarteak zorotzat hartzen duen emakume heldua. Nahiz eta bera den enpatikoena, zentzudunena eta osasuntsuena.

Inguruan bizi den ehiztari baten heriotzarekin hasten da liburua. Intrigaz irakurtzen dira jarraian gertatzen direnak ere. Negua, elurra eta bakardadea sumatzen badira ere, Janinaren barne munduak harrapatu nau gehien; ahots narratiboa protagonistarena da eta lehenengo pertsonan egoteak gertutasuna eta indarra ematen dio liburuari. Iluntasun zantzuak txikitu dira eta mundu magikoan murgildu nau irakurle gisa. Hausnarketa sakonak eta konplexuak gauzarik sinpleenekin konbinatzen ditu,

esaldi eta ideia bikainak lortuz: "Iluntzean gertatzen baitira gauzarik interesgarrienak, orduan ezabatzen baitira desberdintasunik txikienak ere. Ni bizi ninteke iluntsenti betiereko batean".

Itzulpenaz Amaia Apalauza Ollo eta Sonia Kolaczek arduratu dira. Esker onen atalean irakur dezakegun moduan, konplexutasunez betetako itzulpena izan da. Polonierazko eta ingelesezko bertsoiak erabili dira, eta gainera, gai zehatzez hitz egiteko erabili diren hitz teknikoak ugariak dira. Baina sentzibilitatea helaraztea lortu dute eta izenburua gogoratzen lanak izango baditut ere, soinu berezia gordeko dut burmuinean. Itzulpen landua, konplexua eta bikaina da.

Euskaraz autorearen beste liburu bat irakur dezakegu: *Arima galdua*. Arte liburu bezala sortua, ederra, goxoa eta indartsua da. Gozatzen jarrai dezagun. ●



MUSIKA

Fenomeno yankia



OLBEK UTZIA

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Abeslari eraginkorrek daude, kantari handiak daude eta erabateko munstroak daude, jotzen duten guztia urre bihurtzen dutenak eta pieza xume bat benetako artelan bihurtzen dutenak, talentu ikaragarriaren bidez. Azken honen erakusgarri, joan den maiatzaren 1ean Euskaldunako Auditoriumean gozagarri izan genuen abeslaria.

Bagenekien Sondra Radvanovsky estatubatuarra egungo nazioarteko soprano-rik onenetakoa dela, baina Euskaldunako eszenan entzutean harrituta utzi gintuen, aurretik jartzen zitzaion oztopo musikal oro gainditzen baitzuen, munduko gauzarik simple eta arruntena balitz bezala.

Radvanovskyk opera-musikaren eta pa luze bat hartzen zuen programa zorrotza azaldu zuen. XVII. mendean Giulio Caccini-rekin hasi, belcantismotik igaro eta verismoarekin amaitu. Azken hori, verismoa, abeslariak ohiz kanpoko ta-

lentuz bere egiten du. Radvanovsky eroso egon zen une oro, bere onena emanez.

Bere ahots-emisioak sakoneraino kiskaltzen gaitu: forteetan, gorgarriak, eta aldi berean sentiberatasunez beteak, oihu arrastorik ez dutenak; baita dinamika bizkorrez osatzea atsegin duen piano flotatzaile horietan ere.

Ahotsa mendean hartzeko gaitasunari esker dramatismo ikaragarria erakusten du. Ez da gorputz-erregistroa menderatzen ez duelako, baizik eta bere kantaera bikaina nahikoa delako abestiak eskatzen duen emozio-tartea adierazteko.

Esan bezala, bikain aritu zen erreperitorio osoan. Oso ziurra Giulio Caccini-ren *Amarilli mia bella* interpretatzean, eta bokalki perfektua Glucken *O, del mio dolce ardor* kantan. Baina bere dramatismoa erakusten duten obretan lortzen du publikoa asaldatzea, zentzu onean,

OLBE-K ANTOLATUTAKO ERREZITALDIA

SONDRA RADVANOVSKY
(SOPRANO),

VINCENZO SCALERA (PIANO)

EGITARAU: CACCINI, GLUCK,
DURANTE, BELLINI, VERDI, PUCCINI
ETA GIORDANO-REN OBRAK

EUSKALDUNA JAUREGIA,
BILBO, MAIATZAK 1

noski. Belliniren abestietan (*Per pietà, bell'idol mio, La ricordanza* eta *Ma rendi pur contento*), oso gustura abestu zuen. Agudo indartsuez gain, bere marka diren erregulazio dinamikoak agertzen hasi ziren, *La ricordanza* piezan bereziki ongi lortutako efektuekin. Normala denez, italiar operan duen esperientzia dela eta, zati honetan erakutsi zuen fraseatze onena.

Horretaz guztiaz gain, artista jator (programari buruzko azalpen asko eman zituen) eta oso emozional agertu zen. Malkoak ateratzen zitzaizkion gaitxo duen ama gogoratzen zuenean eta Giordanoren Andrea Chénier operako *La mamma morta* eskaini zion.

Bis batzuk oparitu zituen, bikainak. Azpimarratuko nuke Verdiren *La forza del destino*-ren *Pace, pace, o mio dio*, baina guztiak adierazkorrak eta perfektuak, egitarauaren gainerakoak bezala. ●



Logelatik at!

 MARTA SENDIU ZULAIKA  EIDER ITURRIAGA

Bedroom pop-a. Izenak adierazten duenez, logelatik egindako pop hau musika industrian dagoen arrakala baten alternatiba gisa sortu da, eta, gainera, egungo egoera pandemikoarekin bat dator. Baliabide gutxi, melodia asko, nostalgiari lotutako hitzak eta vintage estetika dira genero berri honen ezaugarri nagusiak.

Industriak bizi duen prekaritate egoeran du jatorria. Genero mota honetako sortzaile askok ez dute arrakasta helburu, haien *mobida* egin eta adierazpenerako bide kontsideratzen dute. Musika tradizionalaz bestelako oinarrietatik abiatzen dira eta Rusowsky, Clairo edo Mori izenek daramate momentuko *Bedroom* poparen lekukoa.

Belaunaldi bereko kideen artean ezberdintasunak gotea ohikoa da eta

horren erakusgarri da Idoia Asurmendiren lehengo albumaren eta *Bedroom* poparen artean dagoen arrakala. Ez dago arratsalde batean logelako intimitatean sortu, produzitu eta gorpuztutako abestirik. Oraingoan denborarekin pentsatutako eta hausnartutako abestiak gailentzen dira, etxeko bakardadean hezurtuak, baina kolektiboki garatuak eta hobetuak.

Hala ere, badago Z belaunaldiak duen bereizgarritasun ukaezina, Internetik gabeko bizitza ezagutu ez izana. Musika sortzeko bide eta prozesu asko egon arren, generazio honek badu zerbait komunean: abestiak plazaratzeko orokortu den komunikazio leihoa. Horren adibide da Idoia, izan ere, aramarioarrak Youtuben hasi zuen bere ibilbidea.

IDOIA

NOIZ: apirilak 30


NON: Gasteizko Jimmy Jazz

Garai berri hauetan ere iraganeko onena gaurkotzen dugu eta Asurmendiren musikak iraganeko zertzeladak ere baditu: folka, popa eta indie-a. The Beatles edo Silvio Rodriguezen doinuak ekartzen ditu gurera, baina Nora Jones, Ed Sheeran edo Nogen bezalako XXI. mendeko artisten kutsuak ere nabari dira.

Diskoa atera eta aste baten buruan sarrerak agortu ditu Jimmy Jazz aretoan. Arrakasta lortu du jendeak ezagutu baino lehen. Espektatiba asko sortu da Idoia Asurmendiren inguruan eta etorkizuneko euskal musikari gisa sailkatu dute. Momentuz Euskal Herrian ikusteko dago nola garatzen diren ohiko banda formatutik urruntzen diren doinu elektronikoak, baina argi dago azken hamarkadetako folk eta indie doinuek arrakasta izaten jarraitzen dutela. ●



Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1															
2															
3															
4															
5															
6															
7															
8															

EZKER-ESKUIN:

- 1. Aukera paregabe. / Azken urtaro. 2. Abereei janaria jartzen zaien egurrezko ontzia. / Aurrez.
- 3. Meatzetan mea ateratzen diharduen langile. 4. Eskailera. 5. Hori ... eta, horregatik. / Bizitzeko behar dena. 6. Toki honetara. / Trinkotasun. 7. Ohitua. / Une egokian. 8. Kalpar. / Mea.

GOITIK BEHERA:

- 1. Hildako pertsona baten agerraldi. / Heldu aditzaren infinitiboa. 2. Erabat bete. / Argazkiko Kafe Antzokia. 3. Ukoak. 4. Kataluniako hizkuntza. 5. Gitarra jotzeko pieza. / 501 erromatar zenbakiz. 6. Sindikatu abertzalea (alderantziz). / Jabetasun atzizkia. 7. Mirabea, zerbitzaria. 8. Zerbait egiteko utzi. 9. Nongo atzizkia. / Iztarte. 10. Irrika, gogo bizi. / Diru-zigor. 11. Zura iragazgaitz bihurtzeko substantzia beltzaxka. 12. Anestesiko mota. 13. Leku hartara. 14. Zati, puska. 15. Norena atzizkia.

Sudokua

ERRAZA


8			1	2				
3			4	5	7			
	9		8			4	6	2
	8			5		1	4	
	5	6				8	3	
	3	4		7			2	
6	2	3			4		7	
		8	2	1				4
				6	9			3

ZAILA

	6					4		
	2	3	8	5				
9	8		7					5
	3	5	6					9
	4				1	2	7	
	1				8		2	9
					1	5	7	8
		2					6	

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



E D O G O I N
 A K E N
 B U.
 D U, M U Z U A
 A N B
 E K
 Z D E H A
 R A

Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Gaia, materiala
- Gai beltzaxka
- Partaide, lagun
- Biloak
- Ekiteko ekintza
- Irri, burla
- Murmurikatu
- Arrantzarako tresna
- Argi sorta
- Jo, jipoitu
- Larrea, zelaia
- Ugatzun itsu
- Txalupetako ohola

EKAIA
TOSTA

EBAZPENAK

BEHAR DU.
 MUNDUAK AZKENA
 GOIZ EDO BERANDU.
ATSOTZITZA

8	5	2	4	7	1	6	3
3	9	6	2	1	5	7	8
7	1	4	3	6	8	5	2
6	4	8	9	3	1	2	7
1	7	9	5	8	2	3	4
2	3	5	6	7	4	8	9
9	8	1	7	4	3	6	5
4	2	3	8	5	6	9	1
5	6	7	1	2	9	4	3

ZAILA

4	1	5	7	6	9	2	8	3
9	7	8	2	1	3	6	5	4
6	2	3	5	8	4	9	7	1
1	3	4	6	7	8	5	2	9
2	5	6	4	9	1	8	3	7
7	8	9	3	5	2	1	4	6
5	9	1	8	3	7	4	6	2
3	6	2	9	4	5	7	1	8
8	4	7	1	2	6	3	9	5

ANAGRAMAK

ERRAZA
 BIKE, 12. ETER, 13. HARA, 14. ATAL, 15. RENA.
 NERABEA, 8. EKIDIN, 9. GO, IZTAI, 10. UZI, ISUN, 11.
 UKAMENAK, 4. KATALANA, 5. ZIA, DJ, 6. BAL, DUN, 7.
GOITIK BEHERA: 1. MAMU, HEL, 2. ASE, DOKA, 3.
 MINERALA.
 DENTSTATE, 7. EKANDUA, AUKERAN, 8. LAKAIN,
 MEATZARI, 4. MAILLADI, 5. DELA, BIZIBEHAR, 6. HONA,
ESKER-ESKUIN: 1. MAUKA, NEGU, 2. ASKA, BEKOZ, 3.

Ione Fernandez Zabaleta

FEMINISTA IZANGO DA
EDO EZ DA IZANGO



EKONOMIA GURE EGITEN

Baratze kooperatiba batean jardun du lanean azken lau urteotan Ionek. Hazi, uzta eta belarrez inguraturik, horrek ere usu jarri dio ekonomia erdigunean. Dioenez, "ekonomia ere bada sozializatzeko bidea eta hor ere emakumeok prekaritatean eta bigarren planoan ibili izan gara beti". Zerbait egin beharra sentitu zuen, "ekonomia ere gurea izan behar" delako. Hala, Mundu Bat GKEren eskaintzari ilusioz heldu zion joan den irailean, pandemia bete-betea eta protokolo guztiek eskatzen duten zorrotasunari helduz eta gisa honetako prozesuak aurrera eramateko beharrezkoak diren goxotasuna eta gertutasuna baztertu gabe.

"Bizitzea merezi duen bizitza baten aldeko jarduna da ekonomia feminista"

Ara! Gorputz elkarteko kidea da Ione Fernandez Zabaleta (Irun, 1991), eta Mundu Bat gobernuz kanpoko erakundearekin batera euskara hutsezko lehen Ekonomia Eskola Feministaren arduradunetarikoa bat da. Metodologia eta teoria guztia erdaraz dituen ikasketa prozesu hau lehen aldiz euskaraz garatu ahal izatea "lan asko baina pribilegio handia" da irundarraren ustez.

 AITZIBER ZAPIRAIN  IRANTZU PASTOR

Non du jatorria Ekonomia Eskola Feministak?

2008.urtean sortu zuen bizitza duin bat ukaiterearen aldeko erresistentzian dauden ertamerikako emakumeen sareak Abya Yala-n [horrela deitzen diote jatorrizko herriek kontinenteari]. Mundu Bat gobernuz kanpoko erakundeak ekarri zuen Euskal Herriera eskolaren ideia eta teoria.

Eskola edo eskolatxoa deitzen diogu, prozesu luzea eta konplexua delako. Ez da kontsumo azkarraren ereduarekin egin daitekeen zerbait. Ikasten dena gorpuztu eta barneratu egin behar da. Behar duen astia eman behar zaio. Bederatzi hilabetez hilean birritan lau orduz elkartzen gara. Norberaren esperientzia pertsonaletatik hasten gara eta hori teoriarekin eta oso zabala den bizitza filosofia batekin lotzen dugu gero. Ekonomia- ren eta feminismoaren ezaugarriak uztartzen ditugu.

Zer lantzen duzue?

Patriarkatua, kapitalismoa, emakumeentzako diru sarrerak sortzeko iniziatibak, emakumeek sorturiko

ekonomia erresistentzia iniziatibak, eskubide, behar eta pribilegioak, desirak, eta dekolonialitatea dira eskolatxoan lantzen ditugun moduluen izenburuak. Ekonomia feministak bizitza duinaren aldeko apustua egiten du, egun indarrean dagoen sistemari aurre eginez. Kapitalismoak bizitza zapaldu egiten du, hil egiten du eta, gainera, aplikatzen dituen politikek heriotza sustatzen dute. Bizitzea merezi duen bizitza baten aldeko jarduna da ekonomia feminista.

Icebergaren irudia hartuko bage- nu, produktibitatea legoke goialdean. Hori mantentzeko azpian gelditzen dira inolaz ere aitortzen eta ikusgarri egiten ez diren hamaika lan, egun hainbeste aipatzen dugun zaintzaren adibidez.

Euskal Herrian Ekonomia Eskola Feminista ugari egin dira orain arte, baina zuek lehen aldiz euskaraz egitea lortu duzue.

Bai, Oiartzunen ari gara lanean bertako asanblada feministak onartu baitzuen proposamena, eta han ezin zuen bestela izan. Guretzat euskaraz



Egoerara egokitzen ikasi dugu, eta hori ere erakusten du ekonomia feministak.

egitea zen aukera bakarra. Enara Iruretagoiena kidearekin batera ari naiz lanean eta euskaldun gisa erronka handia da guretzat. Teoria guztia gaztelania hutsean dago gaur egun, hala sortu baitzituzten eskola eta teoria, eta gure gain hartu dugu itzulpena.

Nola bizi duzue ikasketa prozesua euskaraz eskaini ahal izatea eta aldi berean teoria guztia itzultzearen erronka?

Lan handia izan arren, gure identitatearen parte da. Ara! Gorputz elkartean apustua egin dugu gure dinamika oro euskarara hutsean garatzeko, Euskal Herrian bizi garen euskaldunak baikara. Beraz, hein handi batean, bada geure buruari zor diogun aitortpena. Eta ekonomia feministak hori ere biltzen du: aitortpena; jendarre patriarkal honek eta sustatzen duen sistema kapitalistak une oro zapaltzen dutena azalartzea. Ezberdina ikustea eta aintzat hartzea, zapalketak ekiditea edo lantzea, ekonomia monetatik harago ulertzea... Egiten ari garen prozesuan aski ikusezin gelditzen da teoriaren itzulpenak ematen digun lana, baina merezi du. Oso gustura gaude.

Zaintza aipatu duzu lehen, Ekonomia Eskola Feministak badu horren inguruko proposamenik?

Oso zaila egiten zait erantzun zuzen eta orokor bat ematea, Ekonomia Eskola Feministak proposatzen duena oso zabal-baita. Prozesua bera modu komunitarioan landu behar da eta zaintza zer den kide guztien artean zehaztu. Izan ere, zaintzaren inguruko hainbat esparru agerikoak badira ere gaur egun beste asko guztiz ikusezinak dira, eta baita mespretxatuak ere. Nire ustez, eztabaidarako espazioak sortuz egiten da bidea. Izurrite garai honetan, gainera, are zailago da gisa horretako eztabaidak ematea. Dena indibidualizatzeraz bultzatu gaituzte, kutsatzearen beldurrez. Eskolatxoak ordea, kolektiboa defendatzen du. Euskal Herrian esperientzia baikor eta ederrak diren sareak sortu badira ere gutxiengo dira. Puntualak diren ekintza baikor horiek orokorrak izan beharko lirateke eta, gainera, instituzioek bultzatu beharko lituzkete. Une hauetan asko igartzen dugu jendearentzat eskolatxoan elkartzea bera arnas gune bilakatzen dela.

Nola eragin dio pandemiak

eskolatxoari?

Logistika aldetik aski zaila izan da bartzuetan, baina prozesuaren amaieran gaude eta ez dugu saio bakar bat ere bertan behera utzi behar izan. Lan egiteko beste eredu eta metodologia batzuk aurkitu ditugu, elkar besarkatzea eta elkar ukitzea jasotzen baititu jatorrizko metodologiak. Egoerara egokitzen ikasi dugu, eta hori ere erakusten du ekonomia feministak. Bizitzen ari garena kontuan harturik, partaide gehienontzako oso sendagarria izaten ari dela esango nuke. Pozik gaude eta balio monetariotik harago nire soldataren zati baten iturria pozaren bidez jaso ahal izatea oso atsegina da.

Nolakoa litzateke pandemiaren kudeaketa indarrean legokeen sistema ekonomia feminista balitz?

Oso zaila egiten zait irudikatzea, erreallitate horretatik oso urruti gaudelako. Baina zinez diot, inolako zalantzarik gabe, hobe izanen litzatekeela. Pedagogia feministak elkar entzutea dakar bere baitan, sentimendu eta bizipenak aintzat hartzen ditu, besteak beste. Egungoaren guztiz kontrakoa da! ●



Madrilgo hauteskundeak errepikatzeko eskatu du EITBk, zertaz hitz egin ez duelako jada



Madrilgo Txanberin EITBk duen egoitzan, Aldekoa Kantabriatik etorritako bi langilerekin. Ez galdetu zergatik.

Antonio Aldekoa EITBko zuzendari nagusiak Isabel Díaz Ayusori eskatu dio "gehiegi axola ez badio, eta ikusita erraz duela, kapitaleko hauteskundeak errepikatzeko", programazioa nola bete ez dakielako. "Bizkaikoak oraindik urrun daudenez, Bigarren Probintziako hauteskundeak egiteak aukera emango liguke euskal jendeari benetan nahi due-

na emateko. *Good shit*, badakizu! Eta, ze kristo, bide batez, baserria-eta-ardien -garaiko-abertzale nostalgiko horiei aurpegian zaska emateko: ikusi *loosers*, EITB ez dago Madrilerara begira, EITB Madrilen bertan dago! Uaaaa a a a a!". ETBren azken mugimenduek izututa, audientzia lapur diezaiekelakoan, Antena3, Tele5 eta 13TV lanean hasi dira. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Julian, jantzi ostia!



Eskuburdinak



"Kutxi kutxi, marilutxi, bizipoza dugu auzolan"

EH Bilduk zuzendaritza eraberritu du eta, pronostiko guztiak apurtuz, Arnaldo Otegi berriz ere aukeratu dute horda abertzaleek, lider goren bezala. Gainerako hautagai guzti-guztiak suntsitu ostean, Otegi, bitxilore bati hostoak polliki-polliki kendu ahala, azaldu ditu koalizioaren lerro nagusiak. EH Bilduk "baikortasuna eta bizipoza" zabalduko dituela munduan barrena, "ezkerrak berezkoa duen alegrian-

tziarekin", dio Mandela zuriak. "Behin bizipoza lortuta, errotik eroriko dira matxismo kolonialista (ttak), ondoren arrazismo ilustratua (ttak), gero indar armatuak -salbu eta EH Bildu bozkatzen duten Ertzai kolektiboko agenteak- (ttak), gero Rafak Diezekan eta Kiliki Frexkoren ergatiboak (ttak), ananadun pizzak (ttak), alkoholik gabeko garagardoa (ttak) eta tofuzko hanburgesak (ttak)". ●



19,5 €

%100 kotoi organikoa



Kolore berriak!

Bost kolore aukeran:
Urdina, beixa, arrosa, berdea eta grisa.

Lurra herriari deika

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin, nekazaritza eta gizarte eredu bat bultzatzen ari gara. Beraz, jatea bihur dezagun egunean hiru bider egiten dugun plazerezko iraultza!

Erosteko: argia.eus/azoka 943 37 15 45


Agroekologia mugimendua
eta  **ARGIA** elkarlanean

Kamiseta erosita, 2€-ko ekarpena egingo diozu agroekologia mugimenduari eta beste hainbestekoa ARGIAri.



LAINOA / NIEBLA

ERAKUSKETA
**KEAREN ETA
LANBROAREN ARTEAN**



EBROKO GUDUA. BOMBARDAKETA / BATALLA DEL EBRO. BOMBARDEO

2021-02-18 // 2021-05-23

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga Plaza, 1 | 20003 Donostia / San Sebastián | www.santelmomuseoa.eus | @santelmomuseoa

GERNIKA



ANTOLATZAILEA:



ERAKUNDE BABELAK:



MUSEOAREN PATRONO PRIBATUAK:

